



MARIA JESUS ARANBURU ▶ Goi politikara jauzia



HORIXE LAGUN  
ONAK

ARANAGA, ORMAETXEA ETA ALBIZU PROFESIONALAK, AZPEITIKO KUBIKO HARROBIKOAK

# BERTAKO HARAGIA... ...GURE HARATEGIETAN



# Fragmentazioa eta parte-hartzea

**1** "Egunden batean, abertzale mundua, oso tasunean, legez kanpo egon beharko du. Gure helburuak gauzatu nahi baditugu, gauza ilegalak egin beharko ditugu. Kontua da urrats horiek egiten diren estrategia sendo batekin; orokortua, globala, eta ez fragmentatua". Benito Lertxundiri irakurri nizkion behin hitzok. Duela urtebetetan, Azpeitian, Habea utzi zuten legez kanpo; eta hori ditugu Azpeitiko Segiko gazteak, Ekin-ekoak, Askatasuna, AEK, Udalbiltza, Egunkaria... Fragmentatua, oraindik.

**2** "Jendearen parte-hartzerik gabe kultur-guneak ez du zentzurik", esan digute Udal-leko ordezkarien. Manuel Sanchez Alonso es-painiarak parte-hartze-mailen sailkapena egin zuen aspalditik: eskaileraren behe-behean, informazioa jasotzeko aukera bakarrik ematen duen parte-hartze ereduak: goi-goian, informazioa jaso, iritzia eman, erabakietan parte hartu eta erabaki horien kudeaketan ere parte hartzeko aukera ematen duena. Zein ote Udalaren eredu?

**3** Azpeitiko kultur eta kontsumo-joera alda dezakeela Soreasuk, horixe esan da. Baina hemen kultur eta kontsumo-joera irauli dezakeena Inox da, Landetako diskoteka. Ekin-men pribatua, baina eragin publiko nabarmena duena. Eta horren inguruan, ez eztaba-danik, ez gogoetarik. Eta ez dago ba arrazoi faltarik... Halako diskoteketan bultzatzen duten gizarte-eredua, aisiaaldi-eredua, kultur-eredua; gazteria eta drogak... Eta abar, Kontraesanak kontraesan, zeinek abiatuko du eztabaidea?

## Uztaria ▶

### UZTARIAREN DATUAK

**Argitaratzilea.** Uztaria Azpeitiko Kultur Koordinadora  
**Egoitzia.** Julian Elorza Hiribidea 4  
 beheko, eskubia (Azpeitia, 20730)  
**Telefono eta fax zenbakia.**  
 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztaria@topagunea.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 52.a (2004ko ekainal  
**Urtea.** VI.a  
**Maiztasuna.** Hizabetekaria

**Web orria.** [www.uztaria.com](http://www.uztaria.com)

Diseinua. **hitzko**

**Publizitatea.**  
 ▶ 699 64 86 01  
 ▶ [uztaria@uztaria.com](mailto:uztaria@uztaria.com)  
**Bazkidetza-Harpidetza.** 15-03-58  
**Tirada.** 2.400 ale  
**Inprimategia.** Gertu  
**Azaleko argazkia.** Nerea Uranga

**Oharra.** Uztariak ez du bere gain hartzen aldekarriko aferazitako esanen eta inizien erantzukizunak



Guk zerbitzua eta  
 tama euskaraz

### [U-iritzia]

**08 Inuesta.** Iritsi da udaberria eta hasi dira herriko festak. Jendea joaten al da herriko auzoetako jaietara?

**10 Gogoetari leiho.** Azpeitia 2020. Aitor Aranguren eta Aitor Unanue, ingurumenaz mintzo.

### [U-mamia]

**12 Maria Jesus Aranburu.**

Irakaskuntzara itzuli da, eta orain dela gutxi GBBko kide aukeratu zuten.

**16 Klik.** Herriko presoen, deportatuen eta iheslanen senideak banan-banan.

**22 Txirrindulariak.**

Aranaga, Ormaetxea eta Albizurekin berriketan,



### [U-jakiteko]

**28 Erdi Aroko Azoka.** Azpeitian, lehen aldiz; ekainaren 19an eta 20an izango da ikuskizuna.

### [U-euskarala]

**40 Pediatrak.** Maiatzean EHEk sinadura bilketa egin zuen herriko pediatrak euskalduntzeko eeskatzuz. Nola dago kontua? Iritzi bilketa...



Enbido &gt;



Pako Aristi

## Gure bizimoduaren sustraiak

**A**zpeitia herri txikia da, lasaia. Horregatik bi gauzezin asko harritzen naiz ni: bata da norbaitek esaten duenean mendira doala, "estresatuta dagoelako, relajatza". Azpeitian estresatzen denak, Azpeitian agobiatzen denak bere barruan baino ez dauka itomen hori. Bigarrena da hiru sarrailako ateak ikustea etxebizitzetan; etxe berriak horrela dato, baina jende askok zaharra erositza eta berritzen duenean, hiru sarraila jartzen dizkio pisu koskorri. Zergatik? Horrek ez dauka ez hanka eta ez buru: Azpeitian delinkuentzia ia ez da existitzen, gure pisoetara norbait sartuko den beldurra ez da erreala, ezta estatistikoki ere. Hamabost urte daramatzat autoa zabalik uzten, eta inoiz ez didate lapurtu, ezta larrua jo nahi zuen bikote desesperatuak ere. Zer gertatzen zaigu? Zergatik gastatzen dugu dirua benetakoia ez den beldur bat estaltzeko?

Alejo Carpentierrek hiri bat probintzianoa dela zertan ezagutzen den deskribatu zuen: "Hiri bat probintzianoa da bertako biztanleek auzokoaren bizitza berdina daramatenean, irizti propiorik gabe besteek zer esango beldumez". Azpeitia nolakoa den galduzu ziotela dirudi hori irakurritakoan. Esan liteke Azpeitia oso-oso probintzianoa dela, jendeak asko bidaiatu arren, edota etorkinak gero eta ugariagoak izan arren. Batzuek horri "nortasunari sustea" deituko badioke ere.

Alejandro Jodorowskyk, berriz, honako hau dio mundu aberatsean bizi den jendearen buruz: "Jende gehienak besteak bezalakoia izan nahi du, eta hilda pasatzen dute bizitza osoa. Besteengandik bereiztuko gaituen zerbait aurkitu behar dugu zerbait izango bagara". Eta gure gizartean gero eta hedatuagoa dagoen beldurrari buruz, hau dio: "Gizarte honek funtzionatuko badu beldurrak funtzionatu behar du. Beldur ugariak daude; beldur ekonomikoak, beldur sexuala, kontzientziaren beldurra, beldur emozionala eta abar. Izua gauza konplexua da:

defentsak sorrarazten ditu eta gizartea aldaketan gabe mantentzen du".

► **ABERATS BERRIAK HERRIAN.** Azpeitia aberats berri bete da. Euskal Herrian orokorean bezala, burgesia nagusitu da. Lehen gehientsuenok pobreak ginen; etxe onekoek piso bat zeukan Zarautzen, eta kito. Aberatsek betiko jauregi eta neskameak. Pobrea zarenean, galtzekerik ez duzu edukitzetan; eta elkarri laguntzeko aukera asko izaaten dira. Orain denok aberatsak gara, edo aberatsek bezala bizi gara, sakrifizio askotxo egin ondoaren, eta bizitza neurri handi batean mikaztu ondoaren. Nahi dugun oso gauza gutxi egiten dugu; kompromisoekin leporaino itota gaude; langileen lan baldintzak atzera joan dira, gero eta txarragoak dira, baina pisua ordaintzen ari denak isildu beharra dauka. Makurtuta bizi gara, zakartuta, baina lortu dugu aberatsak bezala bizitza, itxuraz bada ere.

Lortu dugu zerbait: monobolumena, pisua, bidaia, garajea, eskiatzen ikastea, yatea gobernatzen jakitea eta maniskoa jatea erridikularik egin gabe. Hori dena defenditu beharra dago. Eta delinkuentziarik ez dagoen herrian ere denok hiru sarrailaz ixita bizi gara, inkontiente kolektiboak hala esaten duelako: "Asko lortu duzu, babesu ondo hori dena". Eta horrekin, errukia galdu dugu. Jende ezezaguna eta kanpokoia ezagutzeko interesa. Gizakiarekiko jakinminha galdu dugu, denak etsai bihurtu zaizkigulako: gure lana kentzera dato, gure emaztea bortxatzen, gure umeak bahitzera, gure etxeak okupatzera.

Eta denok elkarren igoal izaten aurkitzen dugu bakea, lassitasuna. Lehen xelebre ikaragarn zegoen herriean; orain denak igoalak gara, denak aspergarriak, denak zozoak, ezer orijinalik entzutea gero eta zailagoa da gure kaleetan, gure tabernetan, eta hiru sarrailaz defenditzen ditugu gure lorpenak, gu Jaungoiko kristauak aukeratuak izan gareloko aberatsa izateko; kanpoan geratzen direnak sasikumeak dira, zakurrak, musulmanak, beltzak, marroiak eta okerrak, Izorratu daitezela, ongi merrezia daukate eta.

### HILEKO GALDERA >

Alcatraz orkeztarik gabeko festak ezagutuko ote ditugu?

# hitzeko

euskara eta komunikazio zerbitzuak

665723979

[hitzeko@hitzeko.com](mailto:hitzeko@hitzeko.com)

itzulpenak - zuzenketak - normalizazio planak - komunikazioa

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



### Erizain lagunzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

#### TITULAZIOA

- Erizaintzako lagunzaile-teknikaria

#### IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

#### LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain lagunzailea
- Lehen artapenetako lagunzailea
- Konsulta pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Hertz-kliniketan lagunzailea
- Gaixoen zaintza

#### IZENA EMATEA

- Ekainaren 1etik 9ra, biak barne



J.M. Iparagirre B.H.I.  
Santa Barbara Bidea z/g  
Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943-721413/721403  
[jniparragirre@edunet.es](mailto:jniparragirre@edunet.es)

# Landeta auzoa



Alaitz Olaizola

**H**erniko auzo batean bizi naiz, gainontzeko herritar guztiak bezala. Gurean izaten dira aste osoan hainbat herritar. Asko, egia esan. Gizon eta emakume, zahar eta gazte, euskaldun eta ez euskaldunak. Guretik pasatzen dira kamioiak, autobusak, autoak, motoak, bizikletak... eta oinezkoak. Asko eta asko aste osoan. Herriko plazak baino bisita gehiago jasotzen ditu gure auzoak, Landetak.

Gure auzoa da, ordea, herniko utxiena, zaharkituena. Jaio bezain pronto bertaratua nintzen eta urte batzuk herriaren erdian pasatu eta gero, berriro itzuli naiz oriomenez betetako nire auzora. Orio menez diot, ordutik ezer gutxi geratzen baita gure auzoan. Berdea omen zen garai batean inguru eta neuk ikusia da, gure etxe ondoan baratza emankorrik bazirela. Bazirela diot, orain lantegiak baino ez baitaude.

Garai batean, Martzelinok txofertutako urbano zahar harten etortzen ginen etxera eguraldi txarra zen egunetan. Egurrezko aulkia zituen trasto zaharrak askotan gogoratzenten naiz. Igual orain ez daukagulako izango da...

Lazkanotarren denda triki hura ere, hura gure auzoko parte garrantzitsua izan zen, kendu zuten arte. Paxientziak ematen zizkigun. Ondo gogoan dut, goizean ogitara joan eta eskukada paxientziarekin ebixa bueltatzen nintzenekoa. Gaur egun, paxientzia da behar dena gure auzoan. Paxientzia galanta, ordu puntetan bidea zeharkatu nahibada. Sekula santan zebrabide triste bat horren beste kostatu denik... Ez da denbora asko, neguko arraialde ilun batean, bide nazkantea igarotzeko sekulako egona egin eta gero, alaban eskutik heldu eta lasterka batean erabat desberdina zegoen asfaltoa pasatzen hasi eta elkarrekin estropuz egin eta gero, bidearen erdian lurrera zapal erori gineko. Sekulako zuloa praketan eta odola barra-barra zetorkidan belaunean behera. Ezin lurretik kolpe batean jaiki, alaba sustu galanta gorputzean zuela, negarrez, eta auto bat gero eta hurbilago. Zebrabidek pasatu izan bagina... Ez dago, ordea, bat bera ere! Gure auzoan ez dago zebrabide p...

Erotonda berria egin zutenean, oinezkoentzako semaforoak kendu zizkigutenean. Orduan ere, gogoan dut, behin lanak bukatu eta gero, han inguruaren zebilen jefetxo batengana hurbildu eta nire kezka azaldu nionean –alegia, oinezkoentzako oso erre-medio txarra zela hura, kontuan izanda hemen inork ez dituela zebrabideak errespetatzen, nola moldatu behar genuen–, lasai asko nola erantzun zidan: “Diputazioak hartutako erabakia da. Ume txikiaren kotxarekin pasatu behar duzunean, atera umea kotxetik, hartu besoetan eta, badaez-pada, kotxea baino ez atera bidera. Autoa geratuko ez balitz, umearen kotxea baino ez dezan eraman”. Lazkanoneko amonaren paxientziak...

Gero, Udalean autobuserako diru laguntzak eskatu eta ezetz, Landeta herri barrutzat hartzen omen da. Esan, Landetakoak herriarrak garela, ez ordea, herniko parte. Ez dut ahanzten gune industriala dela gurea; eta beronek dituen abantaila eta desabantailekin bizitzen badakigula, chitura gaudela. Baino hemen, oinezkoek ez dugu lekurik, umeek ez dute tokirik.

► **ORAIN, DANTZALEKUA.** Orain, denbora gutxiaren buruan, makro dantzaileku horietako bat datorkigu, gainera. Batek daki zer ekarriko duen horrek! Gutxi gorabehera, badakigu. Zer esana emango du hemendik aurrera.

Nonbait irakurri dut inguru hau zerbaite berritzeko diru laguntzarik izango dela. Nol Poz pixka bat ematen du horrek! Akaso, zebrabideak izango ditugu, inguru garbiagoa, oinezkoentzako lasaitasun dosia. Zain geratuko gara, ea dirua zertan gasatzen den.

Oraingoz, herrian jarraituko dugu paxientziak erosten, eta beharrezkoa denerako, etxean gordetzen,

Berriz ere kanpotar askok esango didate zein polita den ni bizi naizen herria. Haiei esan behar, egiteko buelta eder bat oinez herniko auzo desberdinatik, gurelik barne, eta hitz egingo dugula gero. Batek baino gehiagok esango du gero: Honek beti “zaharra zaude Azpeiti” esaten dik!

Norberak bere etxea defenditzen ez badu, akabot Azpeitiarra naiz, eta Landetan bizi naiz. Paxientzi ederrez bueltatzen naiz egunero etxera, gustura eta arreta handiz. Gaur hau falta duk eta bihar hori jarriko dinate esan buruari, eta aurrera.

## HILEKO ESAERA ▶

“Paxientzia artu bear, eskian dabilenak”



## ZURE BEREZKO DOTOREZIA JANZTEN DUGU

LURRINAK - BITXAK - MARILLAK - OSAGARRIAK

gotain



LURRINDEGIA

ERDIKALEA 3, AZPEITIA  
TEL. 943 814 358

BILATZEN DUZUNA BILATZEN DUZULA,  
BETI GAUZA BERA AURKITUKO DUZU

### AUKERARIK ZABALENA

Era guztietako produktuak eta zerbitzuak, diseinuak eta prezioak. Nahi dituzun bezalako baxerak edo mahai-tresnak, ateentzako heldulekuak, gortinentzako barrak, tirader-eskulekuak, sukaldaroko osagariak eta ebnerako eta brikolaje-lanetarako behar-duzun guztia... etxeberriaren den-dena aurkituko duzu. Balta gure profesionalen arreta eta laguntza osoa ere.



**eTxe  
Be  
RRIA**  
Brikolajea & Ebtea

GARMENDIPE KALEA, 1 (futbol-zelaiaaren aurrean) • 20730 AZPEITIA

BADUZU NON AUKEATU

**Trauskil ▶ Jon Berdejo**



**Hau ▶**



Jokin Uranga

## Memoriak ez du gogoan

**M**emoria selektiboa deitzen zaio nahi duguna oroitu eta nahi ez duguna ahanzko abilezari. Bakoitzak garatua da, eta, mintzen gaituzten kontuak ahaztu eta poztzen gaituztenak gogoratzeko baliatzen dugu. Hori zertara datorren galde dezake norbaitek. Ez nabil psikologian lizenziatu asmoz, hori baino simpleagoa da nire paranoia!

Orain bi hilabete, artikulua prestatzen hasi nintzelarik, garbi nuen zen buruz ariko nintzen. Madrilgo atentatuak, horren errudunak, Berrueta eta Santxiken heriotzak eta hiltzaileak. Gizarte bero zegoen, eta ni, zer esanik ez! Barruko amoru eta maitasun guztiarekin ekin nion lanari, hunkitu egiten ninduen gertakari bakoitzari hitzak jari beharrak eta niregan sortutako sentimenduak sarrarazi nahi nizkizuen. Hala ere, guk Uztarrian atera baino 10-15 egun lehenago idazten dugu, gero inprimategitik pasatu eta ahalik eta txukunen jasotzeko alea. Idatzi nuenetik etxearen jaso arteko egunak luze egin ziren, luzeegi seguraski. Idatziak ez zuen hamabost egun lehenago kontatuaaren balio erdirik, lehen hain bero zegoen gizarte, nola edo hala erantzun beharrean sentitzen zena, jadanik hoztua baitzegoen eta erantzuna ematea beste batzuen esku tan utzia zuen. Hori bi astean!

Felipe eta Letiziaren ezkontzarekin (nire memoria selektiboa egiterako ahaztua dauka) ez gara urteetan ahaztuko, baina ondokoaren senideren bat poliziak tiroz erail duela berehala ahaztuko zaie batzuei, non eta bere etxeko inor llorek hilerrira eramatzen ikusten ez duen.

Hori egoismoa da, benetan diot, mintzen gaituzten gauzak gogoratzek edo gogoratzen saiatzeak merezi du, nahiz eta triste sentitu, hilemira lore sorta bere senide erailari eramatera doanak jakin dezan bere sufrimenduan bat egiten dugula. Angel, Kontxi... gogoan zaituztegu!

**Galdetuz ▶**

## Herriko auzoetako festetara jaoten al zara?

**MARI SOL LEGARRA ▶**

zestoarra



"Nahiz eta orain Azpeitian bizi, ez dut oihutarrik inguruko auzoetako festetara joateko. Sanjuandegikoetara bai, baina besteetara ez".

**LUXIO LAPEIRA ▶**

azpeitiarra



"Aratz-Errekako festetara eta joaten naiz. Lagunekin merienda edo afari-pasada egitera joaten naiz normalean. Sortzen den giroa gustatu egiten zait".

**GUADALUPE ZUBIZARRETA ▶**

errezildarra



"Ez, ez naiz festa zalea. Gaztetan ere ez nintzen asko ibiltzen festetan eta orain gutxiago. Azpeitian bertako, herri guneko festetan ere ez naiz asko ibilia".

**ÍÑAKI ALTUNA ▶**

nuarbeitarra



"Bai, normalean hemen inguruko festa gehienetara joaten naiz. Denboraldiaren arabera gehiago edo gutxiago joaten naiz, baina normalean beti egiten dut buelta bat".

**Apunteak ▶****GORA.**

Berriz ere oso ondo joan da aurten preso, iheslari eta deportatu politikoaren aldeko. Elkartasun Eguna. Parte-hartze handiko ekimenak izan dira, eta herriarrak gai horretan kontzientziatuta daudela ikusi da.

**GORA.**

Arrakasta eduki dute Udalak eta Emakumearen Mahaia aurten emakumeei zuzenduriko ikastaroek eta taldeek. 175 emakumek hartu dute parte. Bada zerbait. Beharra zegoen seinale. Asmatu zen seinale.



Emakumeen ikastaroetako antzerki taldekoak. URCUA-KOSTAKO HITZA

**BEHERA.**

Urrestilla bidean trafiko seinaleak ez dira batere ikusten. Denak ere belarrekin estalita daude, eta horrek ez du bide segurua egiten. Errepidea bera ere zuloz beteta dago.

**Uztarria.com ▶****Inkesta.**

**Uztarria.com-eko hizkuntza eskubideen atal berriak laguntzen al du herritarren kontzientzia?**

- ▶ Bai, %48,3.
- ▶ Ez, %38.
- ▶ Batzutan, %13,7.

**Orain dagoena.**

▶ Inkesta. Urrestillako festak dator; joateko asmorik ba al duzu?

▶ Eztabaidea. Herritarren Zerrenda legez kanpo uzttea zer iruditu zaizu?

**Zer dio? ▶ Aitor Arana (idazlea)**

# Zorionak, 'Literatutzta'!

Literatutzta aldizkariaren 2. zenbakia irakurri dut taberna batean eskuratuta, eta zorionak eman nahi dizkizuet aldizkan erakargarri hau egiten du zuen guztioi. Nik 19 urte ntuenean (jadanik duela 21) bagenuen Legazpin Hots izeneko aldizkari bat, oso baliabide eskasekin egiten genuena. Hura egitteko ilusioa, aldiz, munduko handiena zen. Hots aldizkarinak, bereziki literaturan begira, Hotsizki aldizkaritxoa sortu genuen multikopistaz eginda.

Literatutzta ikusi eta irakurri dudanean, berebiziko poza hartu dut horrelako ekimen interesgarria begien aurrean berriro jende gaztearen eskuistik gauzatik ikusi dudanean. Nire begien aurrean pil-pil eta bizi-bizi ikusi ditut guk geure aldizkari txiki hartan era-biltzen genituen gaiak, sentimenduak eta ilusioak, biziberrituk eta jantzi berriz apainduri. Genero ugari topa daiteke, gainera, maketazio erakargarriko

eta egitura txukuneko zuen aldizkari eder honetan. Bejondeizuela!

Animorik handiena bidali nahi dizuet hitz hauen bidez Literatutzta egiten duzenoi, orain arte bezain ongi lan egiten jarrai dezazuen.

Gure Hotsizki apal hura egiten genuenean, Legazpiko lasalletarek uzten zizkiguten beren idazmakinak eta tresnak geure lan eta ilusio papereratuak kalera atera genitzan. Eta gogoan dut nola animatzentzintzen Jokin Otaegi eta Iñaki Zelaia lasalletarek: "Lan egizue txukun, ziurenik idazieren bat ate-rako da-eta zuen artetik". Asmatu egin zuten 20 urte inguruko gazteoi animo hitz hain zuzentzean, gaur hala baita; idazle bat edo beste ateraz zen talde haratik.

Literatutzta-n idazleak jadanik, susmatu baino gehiago, ikusi egiten dira. Zorionak eta eutsi goiarazi

**• Eta beste**

Ainhoa Odriozola

# Zorigabekoen kofradia

Badirudi azken boladan zorioneko gabiltzala gure herri santu honean. Bateko loteria eta besteko kupoia, milioi euroa izan dugu Azpeitian. Zuetako bat busti bida, zorionik beroenak, eta ez bazaizue ezer portunatu, nire kofradiako ateak zabal-zabalik dituzue: zortegabekoeña, hain zuzen ere. Izan ere, konbentzitua nago zorteak izateko zorteko jaio behar dela, zergatik bestela zortea pertsona batzuei segi eta beste batzuei ihes egiteko duen ohitura nazkante hori? Uste dut bizitza guzian ez zaialda ezer tokatu, ez loterian, ez kinelarik, ez gabonetako otarrarik. Ez mariskada, txuletada edo urdaiazpikonik, hainbeste aldiz errifatzen den musika kate, bizikleta edo bidai zitxnik ere, ezta eskolan anderainoak azken egunetan zotz egiten zuen posterrik edo trikitian lagunak zitalki zozketatutako-karamelu txupaturik ere. Oraindik gogoan dut Iraurgi saskibaloi taldearen partidu batean errifatu zuten otarraz: zenbakiak eserlekuaren arabera ziren, nire ondokoari tokatu zitzzion. Honi izan da zorlea gertuen pasatu zaidan aldia, adarra jotze aldera edo.

Ba omen zen amona xahar bat egunero mezatara joaten zena, bi-bi-bi-bi, eta egunero erregutzen omen zion bere debozioko santuari, loteria apurtxo bat bida ere tokatzeko. Halako batean, denbora asko pasatuta, santuak kupituta horrela esan omen zion: "Ni laguntzeko prest nago andrea, baina egunen batean gutxienera jokatuko bazenu...". Zorteari dei egin behar zaio, tentetu egin behar da gerturatzeko. Neu ere amona horren pare ibiltzen naiz, loteriaz besteei tokatzen zaienean gogoratuz, uste dut ez naizela bakarra: baietz bolada batean kupoi salmenta igo apustu egingo nuke. Bien bitartean konforma gaitezen dugunarekin, oraingoan zorteko izan direnei gogoratu: besteeik ospatzea dela oriena. Afantxo bat, ronda pare bat, asteko kafetxoa bida ere...

# Adiskidetasun lana

Aitor Aranguren ▶ Geologian lizenziatua eta doktoratua da EHUn. Unibertsitatean irakasle titular postua lortu eta Geologiako irakasle izan zen 1988tik 2003 arte. Orain Aldundian Ingurumen zuzendari nagusia da. Aurreko legealdian zinegotzi izan zen EAlik, Ingurumen batzordeburu.

## AZPEITIA 2020

### ▶ Ingurumena

**Zabala da  
ingurumenaren  
arloa, baina  
nolakoa izango da  
arlo horretan  
Azpeitia 2020an?  
Birziklatzeko  
materiala nola  
banatuko dugu?  
Zenbat kotxe  
izango dira  
herrian? Nola  
jokatuko dute  
herritarrek  
kutsaduraren  
aurrean?**

**M**lioika urte gutxi batzuk daramatz gizakiak naturarekin bat eginda baina azken bi mendeetan eta bereziki azkeneko hamarkadetan gizakiak errespetua zeharo galdu dio amalurri eta planeta urdinako jaun eta jabe gisa dihardu. Zorionez, badira zientzialariak, agintariak eta talde ekologistak argi gorria pizten behin eta berriro: aldaketa klimatikoa, biodibertsitatearen galera, kontsumo-eredu mantenezinak, kutsadura eta honi loturiko gaixotasunak, baliabide natural ez-berritzaletan kontsumoa (energia eta materia), iparra eta hegoaren arteko gero eta tarte handiagoa, eta abar luze bat.

Gure kulturan natura denda modura erabilitzen dugu eta uste dugu nahi dugunean eta nahi adina har dezakegula bertatik. Eta oker gaude. Gizakioi ahaztu zaigu natura gure etxea dela, naturaren parte garela eta adiskidetu beharrean gaudela. Garapen iraunkorra horixe da: gizakia naturarekin adiskidetzea. Garapen iraunkorraz erraz eta gehiegiz hitz egiten da, eta luze jardun daiteke honetaz, baina garapena gizakien ongizatea baldintzatzen duten kalteak arinduz gauzatzen den aurrerapena dela esan liteke. Hitz eta esanahien arteko dantza honetan (atzean gizarte eredu ezberdinak daude borrokan) funtsezkoa da garapena eta hazkundeak ez nahastea, eta ez da erraza baina garapena kaltzeari dagokio eta hazkundeak mailari.

Heltzen ari zaizkigun seinaleak behin eta berriro adierazten digute kontrolik gabeko hazkunde ekonomikoak mugak dituela, eta hausnarketa sakon baten beharrean dagoela egungo produkzio-sistema eta kontsumo-eredua. Herrialde garatuenean, gainera, muga fisikoek egoera larritu egiten dute eta Euskal Autonomi Erkidegoak, Gipuzkoak, Azpeitiak bereziki pairatzen eta pairatuko dute, adibidez, lur eskasia. Egunerokoan gure zilborrari begiratzearekin ahaztu eta gure seme-alabei utzi behar diegun herriaz eta munduaz hausnartu behar dugu, "herrian eginez eta munduan eraginez".

Argi gorria piztuta egonik (nahiz eta askok oraindik ez sinetsi) erabakietan eta jarreretan aldaketa etorriko da pixkanaka, baina makal dator, oso

makal. Oso erosoa bizi gara eta herritarra berri hauetan telebistan entzuten ditu eta urrutit sentitzen. Agintari askok, berriz, oraindik ere "ingurumeneko kontu horiek" beren kudeaketa dotoretzeko erabilten dituzte. Ze, garbi izan dezagun, denok garela errudun eta denok jarri behar dugula zerbaitego era zuzentzeko eta hobetzeko: herritarra, agintariak, enpresak.... Nik pertsonengan sinesten dut eta zentzu honetan gizabanako jarrerak aldatzeko informatu, sensibilizatu eta hezi egin behar dira. Eusko Jaurlaritzak atera berri duen 2004. ekobarometro soziala oso adierazgarria da ([www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net)): erdiak baino gehiagok ingurumen-arazoei buruz informazio zabala du, jendearen ingurumenarekiko interesa hazten doa baina oso gutxi daude prest honen alde ezer egiteko, ingurumenarekin oso kezkatuta daudenak %30 dira orain, trafikoaren ondorio kaltegariek eragin handia dute herriarren %65engana, herriar gehienetan ustez (%66) gizakiaren jarduera kaltegarria da ingurumenarentzat, herriarren %65ek baino gehiagok diote beti bereizten dituztela birziklatzeko materialak. Egoera hobetu egin da 2001. urtetik hona, baina munduko egoera aztertzean ezkorragoa da balorazioa, udal-administrazioa da ingurumenari buruzko erabakiak hartzeko mailarik egokiena, erdiak uste du EAEn ez dela behar adina egiten ingurumena babesteko, herriarren %60aren ustetan fabrikak dira EAEn ingurumena polutzen dutenak. Inkestatzailearen aurrean jendea zorabiatu egiten da, zer hipokritak garen.

Azken batean, ohitura aldaketaz ari gara hitz egiten, eta hori ez da bat-batean emango, epe luzerako lana da, betirako lana baita iraunkortasuna. Administrazioek (eta pertsonak) arazoak aurrean bi joera mota azaltzen ditugu: bata errektiboa –hau da, arazoak sortzen direnean konponduz– eta

### ▶ INGIZATEA

Tristeena zera da: batzuek ongizatea eraikitako etxe kopuruarekin, errepiideekin... neurtzen dute

# Autoa, hiltzaile sakratua

bestea planifikatzailea, neurriak ezarriz arazoa sortu baino lehen. Bide luze horretarako eta iraunkortasuneranzko bidean pausoak ematen hasteko, Azpeitiko Udalak tresna bat martxan ipini zuen 2000 urtean: Tokiko Agenda 21. Hasieratik bide zaila eta izan zuen, ez zuen denen onespresa eta interesa jaso, baina komunikazio lan izugarria egin zen eta herriaren parte-hartzearen bideak diseinatu zituén, zimenduak eraikitzen hasi zen soilik. Zailena falta zen eta falta da: Udaleko egitura tekniko eta politikoan (pertsonetan berriz ere) iraunkortasuna integratzea. Bi multzo horietako batzuen jarrera ikusirik, ez dut itxaropen handirik.

► **ALDAKETA?** Azpeitia 2020. urtean? Ez da ikeragarri aldatuko, 15 urte ez baitira nahikoak alda-keta sakonak nabarmenzeko, aldaketarako erabaki eraginkorak hartzen ez badira behintzat. Atzera begirada luzea emanet gero, gogoratuko ditugu ibaia hilda, zaborrentzako edukiontzirik ez, mendiak sasi erretzeak, enpresak airera eta uretarra dena botatzen, herria planifikatu gabe hazten eta, gainera, autoen zerbitzura. Txikitak ebepeko dendar asto ilarak ezagutu ditugunok, ziurta dezakegu gauza batzuk aldatu direla, bai, baina beste batzuek berdin edota okerrago jarraitzen dute: auto kopurua hazten, energia, material eta ur gehiago kontsumitzen dugu, gero eta zabor gehiago sortu, errepide eta pista gehiago...

Tristeena zera da, batzuek, oraindik ere, ongiztea eraikitako etxe kopuruarekin, egindako errepide berrikin eta aparkaleku kopuruarekin neurten dutela. Penagaria benetan. Eta ea bateren bat konturatzen den Azpeitia ez dela hiri ingurunea soilik, baizik badela ura, airea, lurzorua, basoak, baserriak, paisaia, animaliak, hizkuntza, pertsonak (batzuk animalien taldean sar ditzakegu). Nola gizarte bat modu iraunkorrean garatu, bera bizi den inguru fisikoa kontuan izan gabe? Jakina ba, gara-pena gizartea dagoen lurraldeari ere dagokio!

Dena den, begiak itxi, Xoro tera igo eta amesten hasita, Azpeitian zuhaitzak nonahi ikusten ditut, gutxienez Izarraitz, Izazpi inguruak eta erreka batzuk babestuta daude, zaborra gaika biltzen dugu denok, kalea oinezkoek eta bizikletek kolonizatu dute eta auto elektrikoak erosteko aukera zabala dago, energia berrizagarraren erabilera asko zabaldu da, etxe berriean derrigorrezkoak dira eguzki plakak, lur eskasiaren arazoa barneratu da eta eraikuntza hiri barneko espazioetan maximizatzen da, pobrezia testimoniala da, langabezi-tasa baxua (emakumeengen ere), euskara bazter guztietan barreiatu da, gizartea bekean dago...

Aitor Unanue ▶ Ingeriaritza teknikoa ikasi zuen Arrasaten, eta gaur egun Biele enpresan dabil lanean. Erkaxo ingurumen taldeko kidea izan zen, baita Lagun Onak Mendi Bazkunako zuzendaritzako kidea eta EHko zinegotzia ere.

**A**utoak 9.000 pertsonatik gora hiltzen ditu urtero Espainiako Estatuak eta 15.000 lagun uzten ditu ezindurik. 17 eta 29 urte artekoen heriotzen erdiak autoak eragiten ditu. Europan urtero 65.000 persona hiltzen ditu; munduan 800.000. Bestalde, autoak isuritakoak gaitz ugari eragiten ditu: nerbio sistema, bihotza eta biriken funtziola kaltetuz eta defentsa gutxitzea, minbizia, arnasketarako gaitzak, euri azidoa eta negutegi efektua... Autoaren bidaari-garrai ohalmena ere trika da bestelako garraiobideekin alderatzu.

Nola da posible autogintzak aurrera egitea? Esaera batek dio: ordaintzen duenak agintzen du. Gobernu, legebiltzar eta komunikabideek autogileekiko duten morrontza ageria da. AEBtan adibidez, General Motorsek goi karguak eta Pentagonokoak pertsona bereiek bete izan dituzte historian. Espainiako Estatuak 1992an zerga bidez eskuraturako diruen %16,5 autogintzatik eskuratzen zuen, eta bi bilioi pezetatik gorako kopurua zen.

Herrian ez ezik, mundu osoan auto saltzaileek euren produktuarenganako adikzioa txertatu dute; horretan fin aritu dira. Baina herri honen geroa kontuan hartuta, autoarenganako adikzioa heroina, kokaina, krack edo tabakoaren aldean arriskutsua da. Zuhaitzak, umeak, agureak, txirrindulariak... estorbo izatera pasatu dira kalean. Noski, gure udaletxe aurreetara ez da inor ateratzen autoak herriko seme bat aurrerik eramatzen dueñeak, Jainkoak hala nahi balu bezala, ez dago zer eginik. Gure biziraupenaren zutabe izan diren mendi, soro eta basoak sakrifikatzent ditugu haren alde, oinpean txikitzeko betirako. Gure zibiliza-

zioko jainkoa da: autoa gurtzen dugu, autoa da gaurko altaretako (telebistako) irudi nagusia. Hala hezitzen gaitu, eta bere mende ibiltzera behartu, autoaren goresle eta morroi den erregimen faxista honek.

► **BESTE ARAZOAK.** Autoa ez da ingurumen arazo potolo bakarra, bai agian ezezagunena. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi, herria gizaldietarako kutsatuta utzik duten altzairu ondakinak, metal astunak, toxikoak eta arriskutsuak. Mendi berri bat egiten ari gara Ondria azpian eta bestea Oñederren. Zabor politika arduragabea ere aipatu nahi nuke, Azkoitiko garbigunean islatua. Sistiaga errekkako harrobian gertatzen ari den lurren okupazioa eta txikizioa. Israelen Palestinako lurrekin dabilen jokaera du harrobiaren kudeatzaleak baserritarrekin. Industriaren aldeko politika itsua, sektoren kutsataile eta txikitzaileena izanik, nekazaritza desagertzear utziz. Ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Izazpi Samiñoko, Hirumugarietako eta Gazumeko zentral eoliko proiektuak ere; txikizioa eta energia eredu zentralizatua suposatuz.

Arbasoak herriko inguruak erakari zituen, baina bizitzeko gero eta deserosoagoa egin dugu. Hirietatik ere ahal duenak ihes egiten du ahal duenean; bizitzeko erosoa zena bizitzeko gai ez dena bilakatu da ondorengoenetat. Eta, hain geure egin nahi dugun lurralde hau, haren egoera hain gutxi axola izanik, inork ez duenean nahi eskuratuko dugu.

Gaitz beraren adar desberdinen aurka borrokan ari zirenak, gauz globalizazioaren aurkako borrokan elkartu direnak hain zuzen, aipatu ez ezik goraiaptu gabe ere ez nituzke utzi nahi.

MARIA JESUS ARANBURU ▶ GBBko kidea

# “Politikan sartutakoan harra barruan gelditzen da eta nik oraindik badut”

▶ Testuak: Ihintza Agirretxe-Enekoitz Esnaola ▶ Argazkiak: Ihintza Agirretxe



## BESTE AZPEITIAR BAT.

Ez da Maria Jesus Aranburu GBB berriko azpeitiar bakarra, Idoia Elorza ere bertako kidea baita. 1988tik GBBko buruaren eta prentsa arduradunaren idazkari izan da. Donostian bizi da aspalditik. Argazkian, ezkerretik laugarrena da Idoia. GBB

**I**kastetxetik GBBrren bilerara, handik irratira, irratik etxera... antzera dabil azkenaldian Maria Jesus Aranburu. Idazleen Eskolan ere ari da bere lantxoak egiten. Hon da denbora aproba-txatzea hori! Uztarriari ere egin dio tarterik.

### EAJren Gipuzko Buru Batzarrreko kide berria zaitugu. Zer dela-eta aurkeztu zara?

Alderian normalean norberak ez du bere burua aurkezten. Herrietako batzarrek izenak proposatu dituzte eta nirea aipatu zen zenbait herrian. Nik ontzat eman nuen, lehen itzulian nire izenak babes dezentekoa zuela jakin nuelako. Zergatik? Alde batetik, politikan sartutakoan har hon barruan gelditzen da, eta nik oraindik hor dut. Gainera, uste dut oso egoera politiko interesgarrian gaudela. Nolabaiteko erronka da eta interesatu egiten zaizkit horrelako erronkak. Gainera, Joseba Egibarrek buru egiten duen taldean gustura sentitzen naiz. Horrelako aukera izan eta pena ematen zidan pasatzen utzeak.

### Zer dela-eta Egibarren zerrendan?

Nire izena proposatu zutenek ongi ezagutzen naute, eta nire

borondatea eta ikuspuntu zein ziren ongi dakite. Egibarren ikuspuntutik gertu nagoela esango nuke.

### Eta zertan bereizten da lehia-kide Juaristiren ikuspuntutik?

GBBko lehendakaritzarako baino gehiago, EBBko buruzagitzarako lehian gehiago bereiztu ziren publikoki, nahiz eta ponentzi politiko bera dugun, alderdi bezala bakarra izan eta hori aurrera ateratzeko denok batera egingo dugun. Baina hor ezberdinotasuna talantean edo estrategiak markatzerakoan dago, lehentasuna zeini eman...

### Zu ibili al zara herriz herri?

Ez, horrelakoan Egibar bera eta inguruan dituen bost bat lagun ibili dira hautagaitza aurkezten.

### Giroa gogorra izan omen da. Egibarrek berak esandakoa da aldeak ez direla azalekoak barrik izan.

Egibarrek zauri pertsonalak aipatu zituen, eta badaude zauri sakon batzuk. Buru direnen artean, egunero elkarrekin egiten dutenez lan, harremanan azkar normalduko dira. Baina zailago izaten da horrenbeste ikusten ez diren pertsonen artean gauzak normaltzea. Hori eguneroko bizi-



## Irakaskuntzara berriro

**Berriro irakasle.** "Politikan sartzen garenok argi izan behar dugu lau urteko zikloa dela. Liburu bat irakurtzea bezalakoa da; bädakizu hasiera eta amaitera dituela. Lau urte horiek amaitu eta baldin eta beste zerbaiteko proposatzen bazaitutze eta zure gustuko bada eta lanak irteten badizu, jarraituko duzu politikan, baina argi izan behar da lau urteko kontua dela. Eta niri hala gertatu zitzaidan: lau urte pasatu nituen Kulturako zuzendari eta han amaitu ondoren berriro irakaskuntzara itzuli naiz".

**Prestaketa.** "Nik irakaskuntza utzi nuenean, Ikastolen Federazioek bazituen liburuak-eta euskaraz aterata, eta ez dira horrenbeste aldatu kontuak alde horretatik. Aldatu dena, aurrerakuntza teknologikoen erabilera da. Lehen diapositibak ziren teknologia aurreratuak eta

orain edozein lekutan daude ordenagailuak. Itzulerako klase hura, egia esan, ez nuen prestatu: neure buruarekin azterketa txiki bat egin nuen eta onena ikasleak ezagutzea izango zela pentsatu nuen. Betriere argi utzita ni Lengua castellana-ko irakaslea naizela eta nirekin erdaraz hitz egin behar dutela. Ah, eta segitzen du klasera sartu aurrelik ateá eratzunarekin jotzen..."

**Ikastola.** "Ikastolaren zatiketa garaian, ni Diputazioan nengoentzean eta ez nuen prozesu osoa barnatik ezagutu. Egoera larri eta zatar hiaeik ez nituen bizi, seme-alabak ere ez baitzeuden ikastolan. Distantzia eta pena handiz bizi izan nuen hura. Penas handiz ikusi nituen egoera hark ekaitako ondonoak. Nik uste ondono nagusia herri honetan berriro indarrak zatitzea izan dela".

» tzan ere berdin gertatzen da eta nik uste hori adierazi nahi zuela Egibarrek.

#### **Zein dira GBBko apustu nagusiak?**

Hori Egibarrek erantzungs du. Ni ez naiz GBBko bozeramailea.

#### **Ez al dakizu, adibidez, euskara eta kultura kontuetan zein izango diren asmoak?**

Euskara aldetik, Egibarrek lehen agerraldian argi utzi zuen GBBko edozein kidek egiten dugun age-raldietan euskarak izango duela lehentasuna, eta agerraldien %50 euskaraz baino ez direka izango. Nik uste euskararekin dagoen jarrera argi ikusten dela hor. Orain GBBn gauden kide guztiak euskaldunak gara eta geure lehen bileran ere argi gelditu zen gure hizkuntza euskara dela eta euskaraz egingo dugula.

#### **Bestela, zertan datza, hain zuzen, GBBrren lana?**

Orokorrean bi atal nagusi ditu. Batetik, barne antolakuntza, etxe barrura begirako: batzokiekin harremanak sendotu eta informazioa eguneratuta eman, eztabaida politikoak sortu, informazio ikastaroak antolatu... Gero beste atala instituzioen arteko koordinazioa da (Diputazioak, udalak eta Jauritzak), eta gizartean dauzen talde batzuekin, sindikatuekin, enpresariekin... harremanak izatea, eta, dudarik gabe, hori guztila helburu politikoekin.

#### **Orain EAJren helburu nagusia Ibarretxe Plana da, baina beste indar batzuen babesaren beharko luke. Zeinen?**

EAJri askotan kritikatu izan zaio anbiguetatearen kontua. Baina nik uste anbiguetatea baino gehiago, gizarteko talde ezberdinak hitzartzeko abildadea duela. Galduz gero gaur egun



zeinekin dagoen errazago hitzartze hori, nik uste bi aldeekin da-goa zaila baina entzuten ditu-gun mezuen arabera, ezker abertzalearekin errazago dago PSOEkin baino. Ezker abertzalearen bozeramaileari entzun izan diogu Ibarretxe Planaren sarrerarekin ados dagoela, eta ematen du koinidentzi gehiago izan ditzake-gula ezker abertzalearekin. Baina

horrek beste baldintza asko ekartzen ditu.

#### **Anbiguetatea aipatu duzu, baina EAJk ez al du azaldu inoiz baino argiago zein den bere plana?**

Eziketatzat ezagutzen da guztila eta politikan bi erritmo daudela pentsatzen dut. Batean, zure ideologia ponentzi politikoetan islatzen duzu, eta bestean, ponentzi

“**Nik uste ezker abertzalearekin errazagoa dugula, PSOEkin baino, baina zaila biekin?**”

“**Ni udaletxera? EAJ barruan saiatu nintzen 1999an, baina galdu egin nuen Bastidaren kontra?**”

politiko hori aurrera eramateko balibideek markatzen dute. EAJ-ren ponentzi politikoak irakurtzen baditugu 1978ko batzar orokorrean orain artekoak, oso garbi ikusten da zein ziren eta gaur egun zein diren helburu nagusiak. Beste gauza bat egunero ekin-tzetan egin behar dituzun erritmo aldaketak. Ponentzi politikoak oso garbiak dira beti baina orain bide eta helburu nagusiak dokumentu juridiko batean ditugu.

#### **Azken helburua Europaren beste nazio bat izatea al da?**

Bai.

**Babesa lortzeko indarkeriatik desmarkatzea eskatzen diezue ezker abertzaleari. PSOEri zer?**

PSOEri eskatzen zaiona da hemen herri bat dagoela eta herri bezala dugun borondatea onartzea.

#### **Europako hauteskundeetan HZ isildu nahi du PSOEK...**

Oso gaizki iruditzen zait. HZko herritar horiek pertsonalki ez ba-dau-de legez akusatuta eta eskubideak kenduta, hau da, beren eskubide zibikoak badituzte, zer dela-eta ezin dute aurkeztu? Galdera izango litzateke: ba al dute Espainiako alderdi nagusiek hemi hau normalizatzeko interesik?

#### **Zuen salaketa horiek hor daude, baina hemen ez al da behar hitzak baino zerbait gehiago?**

Egin daitekeena zer den asmatzea ez da erraza. Elkatasuna adieraztean ekintzak ere neurtu egin behar dira, gero horiek beste ondorio batzuk ekarriko lituzketeta, inoren ahotsa ez entzutea hain zuzen. Irakurketa horn beste bat ere egin dakioko: ez al lirateke Europaren kezkatuko herri batetik inor ez dela aurkezten ikuista?

**Hurrengo urtean dira, berez, berriro EAEko hauteskundeak eta ezker abertzaleari aurkezten utziko ez baliote eta onoren bozkatuko balitz Ibarretxe Plana, gizartearren legitimitarik izango al luke edo bozka-tuko al litzateke?**

“**Egibarren taldean gustura nago, eta horrelako aukera pasatzen uzteak pena ematen zidan?**”

Zaila da egoera. Baino EAJk aurreikusita ditu horrelako egoerak. Eta pentsatu nahi dut *sukal/deko* lanak egiten ari garela, eta nahiz eta gizartean ez ikusi zenbait gauza, hor atzean zerbait badagoela.

#### Batzuek hori diote.

Bai, eta, bestetik, Otegi esan du orain gertuago dagoela Jesus Egigurenek esaten duenarekin Ibarretxe Planarekin baino, eta hori ere zerbait bida. Agian, ezker abertzalea ari da sozialistekin zerbaitetan, eta oso ondo iruditzen zait, hitz eginez konponentzen direlako gauzak. Ea horrek indar handiagoa ematen dien hemengo sozialistei, gero PSOE-ren aurrean beraien iritziek forma har dezaten.

#### Aldaketarik ekarriko al du PSOEk Espainiako hauteskundeak irabazi izanak?

Egun batetik bestera ez. PSOEk azken zortzi urte hauetan bi fase izan ditu. Bata, bere burua garbitzearena, eta bigarrena PPrekin egin dituen akordio horiena. Beraz, egun batetik bestera aldatzea ezinezkoa da, baina legealdian aldeak markatuko dituztela uste dut. PSOEk Madrilgo gobernura iritsita bere estruktura asko indartu du eta bere presenzia Espainiako Estatuko autonomi guztietan indartu du. Katalanek eskatzen dutena eta guk eskatzen duguna oso ezberdina da. Katalanek eskatzen dutena bida

## Irratiko lana

"Irailaren amaieran Euskadi Irratian hasi nintzen, tertulietan. Ezuste handia izan zen handik hotsegitea. Baino saltsera bat naiz eta edozein erronkaren aurrean nire jarrera 'eta zergatik ez?' galdeztea da. Hasieran Gabonak arte hasikoz nintzela esan nien eta gero, gustura baldin banegoen eta beraiek ere nirekin gustura bazeuden, jarraituko nuela. Segitzen dut. Lana ematen du, ez dirudien arren. Edozer kontuz enteratze horrek denbora eskatzen du: interneten ordu asko pasatu gauzak begiratuz, egunkariak irakurri... Informazio hori jaso ondoren, zeure ondorioak atera behar dituzu eta ez da lan erraza. Nik ez dut lotsarik gai bat ez badut menperatzen hori argi esateko, eta besteei uzten diet hitz egiten, gehiago dakitelako".

nazio alfontza, baina une honetan askoz pisu handiagoa du finantzazioak. Eta hemen finantzazioa oso atzera gelditu da, hemen karga politiko handiko gauza da eskatzen dena. Eta nik uste PSOEk lau urte hauetan zerbait aldatuko duela, bestela...

#### Orain GBBn zaude. Herrirako gogorik ez ala?

Izan nintzen zinegotzi, 1983tik 1987ra. EAJren zatiketa garala, Gogorrá garala.

**1999an udaletxera bueltatzen saiatu zinen, ezta? Udal haueskundeetan EAJ barruan Jose Mari Bastidarena ez zen zerrenda bat egon zela aipatu zen, eta zu zeundela buru zerrenda hartzan. Hala al da?**

Bai, egia da. Garaí hartzan alderdi barruan bat baino gehiagok ikusiten genuen aldaketarako garaia heldu zela. Baino barruko bozketan galdu egin genuen.

**Diputazioan Kulturan ibili izan zara batik bat. Nola ikusten duzu kulturalki Gipuzkoa?**

Lurralde oreaktua da, ez da Araba edo Bizkaia bezalakoa. Gipuzkoan herri guztiak daude gizarte ekintza zerbaitzuek gehienak. Eta kulturan ere gauza bera geratzen da. Uste dut Diputazioak emandako diru laguntzekin lan handia egin dela kultur etxeak egiten, baina gero horien kudeaketan ez dela batere lanik egin. Zementutan diru asko gastatu da baina gero ekintza horiek man-

tentzeko eta dinamika hori herri sortzeko eta mantentzeko ez da ezer egin, eta arlo honi ez noke nota ona jarriko.

#### Azpeitiari ere ez?

Ez. Hemen kultur etxea bera ere falta da baina hori dela-eta herriko dinamikak indar handiagoa hartu du. Eraikuntza eder hori izan balitz, akaso bertako langileei exijituko geniokeen egin beharrekoa.

**Uztarria aldizkariaren 1. zenbakian eginiko mahainguruan ez zinen kultur etxearen alde agertzen...**

Ez. Baino, batez ere, orain esan dudan horregatik. Nik uste eraikuntza bat aldarrikatzea alferrik dela, denbora berean ez badira baldintzak ipintzen bertako taldeek lan egin dezaten. Taldeek tokia behar dutela? Jakina, baina toki hori baliabide bezala erabiltzeko, Helburua ez da tokia izatea, baliabidea baizik. Mahainguru hartzan Basazabal aipatzen zen herriko kultur aktibitateetarako eta nik esaten nuena zen ez diola axola zein izan etxea edo lekua.

**Hor dago Soreasuko proiektua.**

Egia esan, ez dakit ezer asko proiektu horretaz. Jakin dudanez, taldeak biltzen ari dira Udalarekin zein baliabide behar diren jakiteko eta ea hori Soreasuk ase dezaileen jakiteko. Udalaren eta taldeen artean adostasuna baldin badago, fenomeno. ▶



PILDAIN  
inmobiliaria

Elizalea, 22 • Tf: 943 81 2167 • [pildain@jtc.es](mailto:pildain@jtc.es)



Olamendi  
Bizi Dondo

Goiako - Kalea, 4 - Tresna, 81 13.49



CONSTRUCCIONES  
**ANTZIBAR**  
ERAIKUNTZAK



**AIZPURU**  
AUTOAK

**PEUGEOT**

Landeta Auzoa - Urut.: 943 81 23 59  
Fax: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO  
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 beheha

20730 AZPEITIA - Urut.: 943 81 57 81



Iñaki  
Uranga

Datuak.

- ▶ 1977.
- ▶ Azpeitia.
- Ibilbidea
  - ▶ Argazki Elkartekoak.
  - ▶ Argazki-poesia
  - liburua egiten ari da.

# senideak

# GERTUTIK

Urruntasuna, ezjakintasuna, ezintasuna...

Preso, iheslari eta deportatuen senideek sufritzen  
dutena egunero; Uztarriak 'gerturatu' egin ditu



## ▲ GOTZON ARANBURU.

2002ko abenduan larri zauritu ondoren atxilotu zuten. Gaur egun, Valentziako (Spainia) kartzelan dago, Azpeititik 594 kilometrora. Argazkian, bere aita Joxe ageri da.



### ▲ MAIDER EGIGUREN.

2003ko azaroan atxilotu zuten, eta Solo del Realen (Espainia) espetxeratu. Gaur egun, Alcalá de Henares dago, 500 kilometroera. Argazkian, Xabier anaia.

### JUAN KARLOS ARRUTI.

1989. urtean Irungo Bentas auzoan eginiko segadan, Paterra atxilotu zuten. Puerto Santa María (Espainia) dago, 1.132 kilometroera. Argazkian, Marisol arreba eta Joxe anaia.

### INAKI ETXARTE.

1974. urtean aldegia zuen herritik. Frantziako Gobernuak Afrikara deportatu zuen gero. Gaur egun, Kuban dago. Argazkian, Juan Mari anaia.



## MARI ANGELES ARTOLA.

1978an aldegin zuen herritik. Frantziak Venezuelara deportatu zuen gero, ela ordutik han bizi da. Argazkian, Kontxi ahizpa.



## JOXIN ARRUTI.

Joxin 2002ko martxoan epaiketa egin ondoren kartzelaratu zuten, 1980. hamarkadako kasu bategatik. Orain Dueso (España) kartzelan dago, Azpeititik 200 kilometrora. Argazkian, haren ama Pakita.

## XABIER ETXEBERRIA.

Txapi-k 2001. urteko urrian aldegin zuen herritik eta 2003ko urtarrilean atxilotu zuten Frantzian. Fresnesen dago preso, 911 kilometrora. Ekainaren 7-Ban du epaiketa, Jabirekin batera. Argazkian, Eneko, Intza eta Amets ilobak.

 **JUAN MANUEL  
BEREZIARTUA.**

Pakea-k 1978an aldegin zuen herritik, eta ordukit ihes eginda dago.  
Argazkian, Xabier anaia.





## ▲ GARIKOITZ ETXEBERRIA.

Kafe 2001eko martxoan Haikaren aurka egin zen operazioan atxilotu zuten. Oraindik ez dute epaitu. Alcala Mecon (Espainia) dago, herritik 500 kilometrora. Argazkian, haren arreba Izaro.

### JABI AGIRRE.

Txapi-rekin batera atxilotu zuten. Ekainaren 7-ean du epaiaketa. La Santé-n (Frantzia) dago, 911 kilometrora. Argazkian, arreba Maider.

### JOSEBA SEGUROLA.

Xegu-k, Txapi eta Jabirekin aldegin zuen 2001eko urrian. Ihes eginda dago. Argazkian, haren ama Maria.



## Azpeitiko mendi gida ▶

Maiatzaren 22an aurkeztu zuen Uztarriak Azpeitiko mendi gida, Lagun Onak M.B.rekin elkarlanean. Harrera bikaina ari da izaten. 19 ibilaldi, koloretan... Eskura ezazu Eklipse, Iratza, Martinez, Belaetxe eta Uztarriar.

**3. ibilaldiko orri berria jaso.** Ordenadoreko iratxoengatik, 3. ibilaldian bidea markatuta dagoen argazkiak gaizki irten zuen. Uztarriak orri berna aterra du. Gida aurrez erosi zutenak etor daitezela aldatzera.



Aurkezpeneko irudia. UZTARRIA

### Hitzarmena sinatzeak

Uztarria eta Udala komunikazioko hitzarmena sinatzeak daude, bien proposamenak adostu ondoren. 2000-2001koaren oso antzekoa izango da. Emango dugu horren berri.

### 'Hitza' laster da

Bi asteeko oporrak hartu ditu Urola-Kostako Hitza-k, urrian Orio eta Zarauzko Kilometroak behar bezala joarratzeko. Ekainaren 15ean izango da zuen etxeen berriro Hitza.

## uztarriaren kanpaina HARPIDEDUNEN ARTEAN

**U**ztarria oso gustura dago bazkide kopuruarekin (832), baina ez da horrekin konformatzen, eta aurren **1.000 bazkide izateko helburua** jarri du orain (urte hasieran 800ekoa jarri zuen). Hori dela eta, kanpaina hasi du.

### BI FIGURA ▶

**Zein dira bazkideak?** Uztarriaren proiektuarekin bat egiten eta ekarpen ekonomikoak egiten dutenak. Urtean, 24 euro. Bazkideek, harpidedunen aldean, abantailak dituzte (ikusi behean beltzean dagoen koadroa).



## egin zaitez bazkide UZTARRIA



### Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, behe eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
- ▶ [uztarria@topagutxu.com](mailto:uztarria@topagutxu.com) ▶ Telefonia (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ [www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

### IZEN-ABIZENAK ▶

### NAN edo EHNA ▶

### HELBIDEA ▶

### HERRIA ▶

### TELEFONOA ▶

### E-MAILA ▶

### KONTUKO 20 ZENBAKIA (harpidedunek ez!) ▶

**bazkide gara**  
dagoeneko  
Uztarriar;  
eskerrik asko  
denel

### Zein dira harpidedunak?

Beraien borondatez, sosik ematen ez diotenak Uztarriari, baina aldizkaria jasotzen dutenak (Uztarriak aukera hori ematen diezako, helburu batzuengatik: tira da, euskararen normalizazioa...). Harpidedun bakoi-tza Uztarriari urtean 15 kostatzen zaio.

### KOPURUAK ▶

Bazkideak, 832.

**Harpidedunak.** 1.461 (hortetako 300 oraintxe egin dira, *Hitza-rein* sorrerarekin).

### KANPAINA ▶

**Telefonoz.** Uztarria, Hitze-ko enpresaren bitartez, harpidedunei telefono deia eginen hasiko da, hau ei proiektua ahal den ondoen azaldu (helburuak, ekarpen ekonomikoaren garrantzia, abantailak...) eta bazkide egin daitzen eskatuz. San Inazioak bitartean egingo da kanpaina.

**Diptikoa.** Uztarriak harpidedunei ditptikoa ere banatu die: bazkideek harpidedunak bazkide egin daitzen idatzitako arrazoiekin eta animoekin... ▶

### BAZKIDEAK ▶

Urtean, 24 euro.  
Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria hemi aldizkaria.
- ▶ Imanol Elias eta Jose Takolo biografik.
- ▶ Azpeitiko efemendideak, erdi preziola (nahi baduzu).
- ▶ Mendi gida, erdi preziola (nahi baduzu).
- ▶ Literaturaz.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

### \*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarria diruz lagundu nahi ez baduzu.  
Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarria hemi aldizkaria.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

# HIRUKOTE

## ziklista

Txikitatik dabilta elkarrekin Jokin Ormaetxea,  
Joseba Albizu eta Andoni Aranaga: hasieran  
Lagun Onaken (batera) eta orain profesionaletan

► Testuak: Ainitze Oruesagasti ► Argazkiak: Nerea Uranga



**A**ndoni Aranaga, Jokin Ormaetxea eta Joseba Albizu, Azpeitiko Lagun Onak Txirrindulari Elkartean hasi ziren 11-12 urte zituztela. Orain hirurak profesionalaletan daude, Albizuk (Euskaltel) bi urte daramatzatza profesional bezala, eta Aranagak (Chocolates Jacques) eta Ormaetxeak (Paternina Costa de Almería) aurreneko urtea dute. Aranaga Giroan ibili da maiatzean, Albizu Asturiasko Itzulian, eta Ormaetxearen bidez hirurekin hitzordua jarri du Uztarriak... baina ipinitako ordua baino bi ordu lehenago etorri da hirukotea egoitzara. Horrelako aldearekin aritzen badira txirrindularitzan, ez dute ez etorkizun makala...

#### LAGUN ONAK TXIRRINDULARI ELKARTEA ▶

**Andoni Aranaga.** "Lagun koadrila bezala gogoratzen dut. Katxondeoa, giro polita genuen taldean. Kanpora lasterketaren bat korritzera joan behar



#### Aranaga

**Jaio.** 1979-01-01.  
**Herria.** Azpeitia.  
**Altuera.** 1,80 metro.  
**Pisua.** 72,5 kilo.  
**Profesional.** 2004-01-01.  
**Taldeak.**  
▶ Iberdrola (1998-2002),  
▶ Caja Rural (2002-2003),  
▶ Chocolates Jacques (2004).  
**Palmaresa:**  
▶ Afizionatuetan: Euskadiko Txapelketako erlojupeko, Santiago Mendiako kronoigoera.



#### BATERA.

Denboraldian sartu-sartu eginda daude, batean eta bestean dabilta hiru txirrindulariak korritzen, baina hirurek ere izan dute Uztarriarekin egoteko astirik. Aspalditik ezagutzen dute elkar, eta ederki konpontzen dira. Errepidean entrenatzen ez ezik, tarteka afaltzen eta kalean ere ikusten dira hirurak. Gazteak dira.

genuenean, Escuderoko autobus zahar batean joaten ginen; bizikletak autobusaren sabaian eramatzen genituen, eta kabitzen ez ziren bizikletak autobuseko pasioan eramatzen genituen".

**Jokin Ormaetxea.** "Hasiera zen, eta arroparik ez zigutela ermaten dut gogoan. Garai polita izan zen, ilusioa agian, orain baino handiagoa genuen adin hartan".

**Joseba Albizu.** "Nik ere hasierak gogoratzen ditut. Lagun talde bat genin".

#### BAKOITZAREN EGUNA ▶

**Hirurek.** "Goizeko bederatzia inguruau jaiki, gosaldua eta normalean 10:30ak aldera gelditzen gara hirurok, entrenatzerako joateko. Egin behar izaten dugunaren arabera, batzutan hiru, lau edo bost orduko entrenamenduak egiten ditugu. Saioa bukatua eta etxeratzean, zerbait jan eta lokuluxka. Arratsaldean lagunekin egon, afaldu eta ohera".

#### ENTRENAMENDUAK ▶

**Aranaga.** "Denboraldia ekipoarekin, korritzera baino ez gara joaten. Entrenatu, normalean, hemen egiten dugu. Batzuek abdominalak-eta egiten dituzte, nik ez. Neguan gimnasia, igerilekura gehiago joaten naiz".

**Albizu.** "Denetik pixka bat egiten dugu: luzea, motza, mendia... Garai hauetan bizikletan baino ez gara ibiltzen".

**Ormaetxea.** "Denboraldia hastean entrenatzen gara ekipoarekin; bestela, gu geu aritzen gara".

#### HEMENGO PARAJEAK ▶

**Aranaga.** "Entrenamenduak egiteko toki ideal da hau. Laua eta

malda gorabeheratsuak etxetik geru ditugu, eta hori eskertzen da. Toki pribilegiatua da bizikletan ibiltzeko. Eguraldia da pixka bat hutsegiten diguna".

**Ormaetxea.** "Paraje onak dira hauak. Lauan entrenatu nahi budugu, kostaldera joaten gara eta portuak igotzen Urraki, Madubi aldera".

**Albizu.** "Hemengo parajeak oso ona da. Aberatsa da oso. Denetik eskaintzen du. Albaceteko txirrindulari batek baino zorte handiagoa daukagu alde horretatik; izan ere, han lautada eta haizea bestetik ez daude".

#### TXIRRINDULARITZAREN GOGORTASUNA ▶

**Albizu.** "Ahalegin eta sakrifizio handia eskatzen duen kirola da gurea. Ahalegina egiten den unean baino gehiago, eskatzen duen sakrifizioa da gogorrako".

**Ormaetxea.** "Lehengo batean lagun batek esan zidan futbola txirrindularitza baino gogorrako dela, baina uste dut horrelako txorakeriarik inoiz ez dudala entzun. Txirrindularitzan 24 ordu beraren arabera antolatu behar dira".

**Aranaga.** "Bizikleta gainean ibiltzea polita da. Txarrena aparte egin behar diren sakrifizioak dira; jana, bizitza horren inguruaren antolatzea, parrandak...".

#### PARRANDA ▶

**Albizu.** "Parrandan ibiltzea ez da agian, ondo ikusita egongo. Hon norberak ikusten du. Baino nik pentsatzen dut denboralditik kanpora neguan parrandaren bat egitea ona dela. Denak bere neurria du. Astero parranda botaz

“Bizikletan ibiltzea polita da; txarrena sakrifizioa da: jana, parrandak...”

#### BATERA.

Denboraldian sartu-sartu eginda daude, batean eta bestean dabilta hiru txirrindulariak korritzen, baina hirurek ere izan dute Uztarriarekin egoteko astirik. Aspalditik ezagutzen dute elkar, eta ederki konpontzen dira. Errepidean entrenatzen ez ezik, tarteka afaltzen eta kalean ere ikusten dira hirurak. Gazteak dira.



» gero, bizikletan jai dago, baina noizean behin egitean, buru aldetik-eta ondo etortzen da".

**Aranaga.** "Denboraldian ere tartean behin bat edo beste ez dago gaizki. Egin beharra dago, bestela hobe apaiz sartza".

**Ormaetxea.** "Hori norberak ikus-ten du".

#### AUTODEFINITU ▶

**Ormaetxea.** "Eskalatzalea naiz".

**Albizu.** "Pixka bat errodadorena naiz. Askok pentsatzen dute eskalatzale petoa naizela, baina nik ez dut horrela uste".

**Aranaga.** "Nire burua aldapa motzearako ikusten dut, etapak gora-behera asko dituenean, aldapa luzerik gabe".

#### HASIERAKO HELBURUA ▶

**Aranaga.** "Aurtengo helburua politiki-poliki hobetzen joatea. Bi-garren zatia lehenengoa baino hobea egiten joatea. Urte bukaera pixka bat polita eginez gero, gustura bukatzeko moduan naiz".

**Albizu.** "Urteik urtera hobetzen joatea. Aurten Espainiako Itzulian izango naiz".

**Ormaetxea.** "Nire helburua, Euskal Biziaketan ondo ibiltzea da".

## Ormaetxea

**Jaiotza.** 1980-05-26.

**Herria.** Azkoitia.

**Altuera.** 1,86 metro.

**Pisua.** 72,5 kilo.

**Profesional.** 2004-01-01.

**Taldeak.**

► Kaiku (1999).

► Telcom (2000).

► Ulma (2001).

► Telcom (2002).

► Caja Rural (2003).

► Paternina Costa de Almería (2004).

**Palmaresa.**

► Afizionatuetan: Urrakiko Igoera bi aldiz, Arabako Itzuliko Erlojupekoa, Gorlako Igoera.



Debut 'ona' eduki nuen: erori egin nintzen eta nire gainera, Paolo Bettini"

natzera. Taldean bizikleta gainean gindoazela, bat-batean, sei tximino gurutzatu zitzaizkigun bidean. Parre ederrak egin genituen".

**Ormaetxea.** "Lehenengo lasterketa nuen profesional moduan, profesionaletako nire debutua zen eta ni eron egin nintzen. Nire gainera Paolo Bettini, Italiako txapel-duna erori zen eta ez zen mugitzen. Nik esaten nion 'pero Paolo, muevete' baina hura ez zen mugitzen. Hasiera ona izan zen..."

**Albizu.** "Profesional bezala lasterketa batean ateratzen nintzen lehen aldia zen, Italian eta behin lasterketa korrituta, etxerako hegazkina galdu nuen. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Taxi bat hartu eta hotel batera, Milanen. Hurrengo eguneko hegazkin txartela ateratzen eta egun bat beranduago intsi nintzen etxera".

#### DOPINA ▶

**Albizu.** "Eliteko kirol denetan dago dopina. Denontzako lege beraietik daude eta txirrindulari bakoitzak ikusten du dauden lege horietan ibili eta marra hori pasatzea. Txirrindularitzan bezala, badiro beste kiroletan trampa egiten dutenak. Beste kirol askotan txirrindularitzan baino askoz kontrol gutxiago dago. Gure kirola oso kontrolatua dago".

**Aranaga.** "Txirrindularitza denen ahotan dagoen kirola da. Eman behar zerrikeri asko dagoela. Tranposoak denean daude. Azken batean, txirrindularitzan egiten diren kontrol guztien arabera, beste kirolekin alderatuz, positibo gutxien ziklismoan daude. Mila kontrol egiten dira urtean, era guztietakoak gainera, txirrindulari bat ilea ateratzen diezaio-kete, eta ezin du kexatua. Nik uste kirol guztietan arau batek egon behar lukeela".

**Ormaetxea.** "Bakoitzak jakin behar du zer egiten duen, kontrolak dienentzat daudelako. Bakoitzaren kontzientzia da agintzen duena. Kontrol zorrotzak daude.

#### AMETSETAKO ETAPA ▶

**Aranaga.** "Flandriako Tourra".

**Ormaetxea.** "Frantziako Tourrean, Pirinioetan etapa bat irabaztea".

**Albizu.** "Tourreko etapa bat irabaztea; ahal izanez gero, mendi-ko bat".

#### ALDEGINDAKO UNEAN

##### ZER? ▶

**Aranaga.** "Protagonismo puntu bat ematen du ihes eginda ibiltzeak. Illusioa ere bai. Ondo zoazen seinale da".

**Ormaetxea.** "Baina nahiz eta ihes eginda joan gaizki baldin ba-zoaz, noiz edo noiz pasatzen da burutik 'ea noiz harrapatzen nau-ten'. Ezberdina da ihes eginda joatea edo zuzendariak agindu di-zulako tiratzen joatea".

**Albizu.** "Ihes eginda protagonis-moa hartzan da. Etapa batean ihes eginda ibiltzen bazara, zure lana justifikatuta gelditzen da".

#### PROFESIONALETAKO PASADIZO BAT ▶

**Aranaga.** "Otsailean, taldearekin Malasiara joan nintzen entre-

Torrindulari bat hiltzen bada, Panti hil zen bezala, dopina eman duela, kokaina hartzen, gauza asko zabaltzen dira. Baino futboleko dopinari buruz inork ez du ezer esaten".

#### TOURRA ▶

**Aranaga.** "Lasterketa handia da. Niri ez dit ilusio berezink egiten baina joateko esango valideat gustura joango nintzateke. Irabaz daitekeen lasterketa handiena eta zailena da. Tourrera joateko filtro asko pasatu behar dira. Lehengo, zure ekipoa bertako partaideetako bat izan behar du, gero taldeak hartu egin behar zaitu..."

**Ormaetxea.** "Iaz Andoni eta biok Tourra ikusten izan ginen. Munduko lasterketa onena da, nire ustez".

**Albizu.** "Oihartzun handia du Tourrean egiten denak. Bestelasterketekin alderatuz, Tourrean egiten denak hamar aldiz gehiago kontatzen du. Alde horretatik esan daiteke Tourrak gehiago ematen duela. Beste lasterketa asko daude onak eta garrantziak, baina nahiz eta emaitza onak atera, jendea ez da enterazen. Jendeak gehien Tourra eta Mundialak jarraitzen ditu".

#### IDOLOA ▶

**Aranaga.** "Gustukoak asko ditut, baina bat aipatzearren, Musseuw".

## Albizu

**Jaio.** 1978-07-06.

**Herrria.** Azpeitia.

**Altuera.** 1,70 metro.

**Pisua.** 60 kilo.

**Profesional.** 2003. urtetik.

**Taldeak.**

- Iberdrola (1997-1999).
- Cales Baque (1999-2002).
- Mercatone (2003).
- Euskaltel-Euskadi (2004).

**Palmaresa.**

- Afizionatuetan: Goierriko Itzulia, Aragoiko Itzulia, Tenerife Itzulia, Italiako Giroa, Euskaldun Saria.
- Profesional: Friuliko Giroa.



— Nire ametsa? Tourrean etapa bat irabaztea, ahal dela mendiko etapa bat!"

**Ormaetxea.** "Nire idoloa Ullrich da. Asko gustatzen zait".

**Albizu.** "Inoz ez dut idolotik izan. Hori bai, beti eskalatzaleak gustatu izan zaizkit".

#### ZIKLISMOA TELEBISTATIK ▶

**Aranaga.** "Asko jarraitzen dut txirrindularitzar telebistatik. Karrerak ere ikustera joaten gara".

**Ormaetxea.** "Telebistatik asko jarraitzen dut txirrindularitzar. Lasterketak ikustea gustuko dut. Txirrindularia izateko asko gustatu behar zaizula uste dut, bestela jai dago".

**Albizu.** "Telebistan gehien jarraitzen dudana kirol saioak dira. Batez ere, txirrindularitzar".

#### SELEKZIOA ▶

**Aranaga.** "Euskal selekzioa egongo balitz, gustura aterako nintzateke. Mundiala korritzea egundokoa da da. Beste ilusio bat da Euskal Herriko selekzioarekin korritzea".

**Ormaetxea.** "Espainiakoan baino gusturago aterako nintzateke. Baina Espainiakoak aukera emanez gero, joan egin behar. Afizionatuetan Euskadiko selekzioarekin korritu izan genuen Frantzia aldean".

**Albizu.** "Euskal selekzioaren inguruari txirrindularitzan ez da hurrelakorik planteatu futbolean bezala".

#### ADITUAK ▶

**Ormaetxea.** "Azkoitian behintzat, txirrindularitzaz gehien dakitenak txikiteroak dira".

**Albizu.** "Kirol honetan, beste gauza askotan bezala, sasi-jakin-tsu asko dago".

#### ERORKETAK, PUNTUALITATEA... ▶

**Ormaetxea.** "Kaiku taldearekin nengoela, Aubisque (Frantziako Pirineoak) jaisten klabikula hautsi nuen. Gero anbulantzian eraman ninduten, baina inork ez zidan ezer ulertzan. Anbulantzian goitik behera zorabiatuta jaitsi ninduten. Sekulako antzerkia izan zen. Pauko ospitalera eraman ninduten, larrialditan aulkia gurpildun batean jari eta pasiloan utzi. Han denetik pasatzen ikusi nuen".

**Aranaga.** "Altzon erlojupeko lasterketa batean berandu iritsi nintzenean, orduan izan nuen disgutorik handiena".

**Albizu.** "Eibarko Balentziagaren Omenezkoan erori nintzenean, ukalondo hautsi nuen".

#### TALDEKO HIZKUNTZA ▶

**Aranaga.** "Inglesez ahal den moduan moldatzan naiz taldekidekin hitz egiteko".

**Ormaetxea.** "Taldean gaztelera hitz egiten dut".

**Albizu.** "Euskaraz eta gaztelera hitz egiten dut".

**LAZKANO**  
HORMIGONAK  
SERVICIOS INMOBILIARIOS

URBZ ZENTRU KOMERTZIALA, 39. LOKALA  
20170 USURBIL  
TELEFONO: 943 37 30 69  
FAX: 943 37 79 68  
WEB HORRIA: WWW. INMOURBIL.COM  
EMAIL: INFO@INMOURBIL.COM

**inmourbil**

**AZPEITIA:** Erdi Kale, gazteentzat egokia!

100 m, 3 logela, bainugela, jangela-egongela, sukaldea eta despenseroa

KIRUR  
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Telfox: 943 81 56 06

Faxa: 943 15 03 62

**LUBA**  
AHOLKULARITZA FISKALAI  
LABORALAI, KONTABLEA  
ASEGUROAK  
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30  
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 76  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

# JOAN...



Gurean ▶

XABIER KINTANA

euskaltzaina

## “Aspalditik dut ezagun Azpeitia”

**X**abier Kintana euskaltzaina Azpeitian izan zen maiatz hasieran. Iraurgikastetxek antolatu zuen Euskal Astearen barruan hizaldia ematera etorni zen.

**Lehen aldia izan al da hona  
etorri zarena?**

Ez, aspaldidianik ezagutzen dut herri politikoa. Inoiz Euskaltzaindiako bilerak ere egin izan dira Azpeitian.

**Zer eskaintza etorri  
zara?**

Joan Perez Larrazagakoaren eskuizkribuetan egineko azterketetan aurkilutakoaz mintzatu naiz.

**Zer iruditzen zaizkizu  
Iraurgik antolaturiko eki-  
menak?**

Kultur ekintza interesarriak dira, baina lehen jendeak kultur ega-ri handiagoa zeukan. ▶



## Zortzi milioi euro herrira

Maiatzaren 7an, ONCEren ostiralaetako zozketa berezian, 18.060 zenbakia tokatu zen irabazle, Azpeitian tokatu ere. Zenbaki horretako 60 kupoi saldu zituen Javier Artola azpeitiar kupoi saltzaileak (argazkian). Guztira zortzi milioi euro tokatu ziren eta saritu gehienak herrikoak bertakoak dira. Aspaldian suerteko dabil Azpeitia.



## Urrestillan lokal berria

Maiatzaren 11n Urrestillako Antxieta Elkartean zuen egina deialdia Udalak, eta bertan, Urrestillan Kale Txiki kalean ireki nahi duen erabilera askotariko lokalaren berri eman zuen.



## Neskak txapeldun

Lagun Onakeko neskek igoera lortu dute. Hurrengo denboraldian Espainiako Liga ariko dira. Azkeneko partida maiatzaren 18an jokatu zuten, Garmendipe zelaian, eta B-1 irabazi zioten Ondarruko taldeari.

## Xoxote gaztak beste sari bat gehiago

Berastegi baserrian egiten duten Xoxote gaztak bere bosgarren saria irabazi zuen; II. Bilboko Artzain Gazta Txapelketan; lehen saria. Gaztagileak Maria Luisa Alberdi eta alaba Edurne dira.



**MAIATZAK 2** ▶ XXXIII. Urrakiko igoera, afizionatu eta sub 23 mailako txirrindulari proban Orbea Olarra taldeko Ruben Perez izan zen irabazlea. **MAIATZAK 7** ▶ Azpeitiako profesionalen hasiberrien V. Erremonte Txapelketa hasi zen. **MAIATZAK 8** ▶ XXVIII. Udaberriko Azgazki Rallyan irabazle Mikal Zendoia izan zen. **MAIATZAK 14** ▶ Gipuzkoako Bazkundeak banatu zituen sarietan Biele Azpeitiako enpresek Pyme saria jaso zuen; hau da, enpresa ertain eta txikiegi dagokien saria irabazi zuen.

**EKAINAK 6** ▶ Udal Musika Bandaren kontzertua: Sanjuandegin (12:00etan) eta Nuarben (18:00etan).  
**EKAINAK 17** ▶ Juan Antxieta Musika Eskolako umeen ikasturte amaierako jaialdia, 19:30etan Izarraitz Pilotalekuaren.  
**EKAINAK 20** ▶ Lagun Onak M.B.k antolatuta Mendaur eta Aiako Harrietara irteera. **EKAINAK 1-5** ▶ Aste berdea, Azpeitie Europarekin ingurumenaren alde lelopean, eta aste osoan ekitaldi eta tailerrak antolatu ditu Udalak. **EKAINAK 25** ▶ Festa herrikoien aldeko batzordeak deitura bilera, 20:30ean.

...ETORRI  
◀◀◀◀◀



## SANJUANDEGIKO FESTAK.

Sanjuandegiko udaberriko festak iritsi dira. Maiatzaren 29tik ekainaren 6 bitartean ospatuko dira eta adin guztietako jendearentzat antolaturiko ekitaldiak izango dira egun honetan.

**EKAINAK 5** ▶ 11:00etan ▶ Sanjuandegin ▶ Zilindrada handiko eta antzinako auto karabana

**XABIER URBISTONDO** ▶ Urrestillako festa batzordeko kidea

# “Aurten **zezena jarri dugu** festak indartzeko asmoz”

**E**kainaren 24an ospatuko da San Juan gaua, Euskal Herriko leku askotan bezala, Urrestillan festak ospatuko dira. Xabier Urbistondo umeztildar gaztea urte askoan dabil festak antolatzen eta ongi asko daki festa horien berri.

“Orain zortzi urte hasi nintzen festak antolatzen. Bileretara joan eta gauzetzaz enteratzen. Belaunaldi ka doa kontu hau, eta aurreko belaunaldiak ordezkatzeko sartu nintzen talde horretan”. Gaur egun beste belaunaldi gazteago bali utzi nahi diote festak antolatzearren kargua.

Festak egun gutxi batzutan izaten dira, baina ez da gauza bera gertatzen antolakuntzarekin. “Hiru bat hilabete lehenago asten gara bilerak egiten eta dena prestatzen, ez baita dirudien bezain erraza”.

Festei begira, “beti bezala arbola sartzea izango da festen puntu nagusia, baina aurten berritasun bat sartu duzu. Garai batean iluntzean zezena izaten zen, baina debekatu egin zuten zezena iluntzetan. Aurten ekainaren 26an, San Juan hirugarrenez, goizeko zazpietan so-kamuturra izango da”.

Urrestillan festak hasi, ekainaren 23an hasiko dira, eta 27an bukatu. ▶

### EKAINAK 26

#### Sokamuturra.

- ▶ 07:00etan.
- ▶ Plazan.
- ▶ Urrestillako festa batzordeak antolatuta.

## Besterik ▶

### EKAINAK 12

#### Gazte Eguna.

- ▶ Egun osoan.
- ▶ Plazan.
- ▶ Azpeitien Gazteek Zer!?

### EKAINAK 9

#### Bertsolaritza eta lana.

- ▶ 19:00etan.
- ▶ Eiparan Domebrean; Unai Ituriaga eta Maialen Lujanbio.
- ▶ Manu Robles-Arangiz Institutua.

### EKAINAK 5-6

#### Trinitateko festak.

- ▶ Asteburu osoan.
- ▶ Nuarben.



# erdi aroko AZOKA

**Ekainaren 19an eta 20an  
ospatuko da azoka; Azpeitia  
orduko giroz dekoratu nahi dute**

► Testuak: Iñaki Agirretxe ► Argazkiak: Rosario Ibaeta

**E**kainaren 19an eta 20an, Erdi Aroko azoka ospatuko da, lehen aldiz, Azpeitian, Naparbidea taldeak antolatuta. "Orain hamar urte hasi ginen, eta lehen agerraldia Azkotian egin genuen. UEME elkartearak antolatu zuen azoka hura eta herriaren partehartzea garantzitsua zela-eta animatu egin ginen", dio Rosariok. Ordutik Euskal Herrian 200 azokatik gora antolatu dituzte.

"Hasierako urteetan 20-22

azoketara joaten ginen denboraldian. Orain, ordea, 10-15era joaten gara".

Joaten diren leku guztietan sortzen omen dute ikusmina. "Soinean ibiltzen ditugun arropak geuk egiten ditugu. Modeloa Zumaiako San Telmo museotik eta liburuetatik hartutakoak dira. Erabiltzen ditugun txapelen berdinak, berniz, Gerrikako Gorteetan aurki daitezke". Arropea hasierako urteetan ateratako argazki eta bideo kopurua ez omen dago kontazerik.

Azokaz azoka ederk ezagutu du Rosariok Euskal Herri osoa: "Azoka hauek ospatzzen diren herriak normalean nahiko

## ERDI AROKO AZOKA

**Eguna.** Ekainak 19-20 (larunbata eta igandea).

**Ordua.** Aste bukaera osoan.

**Tokia.** Azpeitiko kaleko edozein txokotan aurkituko da animazioa.

**Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.



bereziak izaten dira. Nafarroan, Erronkari bailara aldean, Lesaka, Lizarra, Olite... Leku askotan ibiliak gara. Gipuzkoan Getarian, Ordizian, Hondarribian..."

Orain Azpeitira dator. Naparbide taldeak ekarriko duen animazio taldeaz gain, herriaren parte-hartzea bultzatu nahi dute. "Horrela jendea festan bertan sentitzen da, eta festa politagoa izaten da. Horiez gainera, herria, dendetako erakusleihoa, etxe atariak... garaiko dekorazioz estaltzeak ere asko laguntzen dio giroari". Asteburu horretan, 8-10 zaldi inguru izango dira kalean bueltaka, eta musika eskolakoak eta txarranga ere izango dira. Postu turistiko bat ere izango da eta bertatik herria ikusteko giza batzuk irtengo dira tarteka. ▶

# RELOJERIA AZPEITIA

Reparación de Relojes Cambio de Pilas y Ma



## AZPEITIA ARGENTINAN.

Argazkian ageri dena Eduardo da, bere dendan. Itxura batean ez du ezer apartekorik dendak. Dagoen lekuaren egoteagatik eta dendaren izenagatik da ezohikoa: denda Argentinan dago eta izena Azpeitia du. Eduardo, Mendozan, bere jaioterrian, bizi da baina denboraldi bat Azpeitian pasatutakoa da. Hemendik Argentinara itzultzean denda jarri zuen eta Azpeitia izena jarri zion. Eta azpeitiar bat hantxe tokatu, eta klik!

► Testua: Iñaki Agirretxe ► Argazkia: Xabier Unanue

## Efemerideak ▶ hilabetea



Txalintxo mendiko gurutzea.

# santuak bai, baina POBRERIK EZ

**Ez zen giro herrian: batzuk bertan ezin bizi eta bizi zirenak ere kexa ziren**

► Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

### EKAINAK 2 ▶

**San Inazio.** 1868an Diputazioari eskerik beroenak ematea erabaki zen idatziz baten bidez, maiatzaren 31n osatuko zen elizkizunera-konbiteda ontzat hartu zuelako. Elizkizun horretan, San Inazio Gasteizko apezpikutzako patroi izendatu zela ospatu zen.



Nuarbeko eliza.

### EKAINAK 5 ▶

**Kanpotarrik ez herrian.** 1693-an kontuan izanda herriko kanpotar behartsu asko etortzen zela eta herrian dagoeneko nahikoa behartsu zegoela –asko herrikoak bertakoak–, egoera hori nolabait moztu nahi zen. Beraz, era guztiako kanpotarrak herritik bidaltzea erabaki zen. Lan horretaz hiru udaltzainek arduratu behar zuten, ahalik eta azkarren.

### EKAINAK 11 ▶

**Nuarbeko eliza.** 1950. urtean Nuarbeko eliza inauguratu zen, erreforma handiak egin ondoren.

### EKAINAK 14 ▶

**Mugak.** 1930ean, alkateak hilaren 11n Txalintxo mendian izan

zuen bileraren berri eman zuen. Bilera horretan, Galo Barrena pertuia eta Bizkarrondo igeniaria zeuden, eta Azpeitia eta Azkoitia-ren arteko mugarrak non jarri behar ziren ikusten aritu ziren, sententziak bere garaien aginduko zuena betetzeko asmoz.

### EKAINAK 17 ▶

**Umeen pare.** 1889an herritar batzuk kexatu egin ziren frontoian, adin handikoek gaztetxoei jolasten uzten ez zietelako, ezta txandaka ere. Udalak udaltzain bat jarri zuen frontoian. ▶

## Pertsonaia ▶

### JOXE MARI IRIONDO.

Ekainaren 10ean 66 urte beteko ditu Joxe Mari Iriondo urestildarrak. Guztiontzako aurpegia ezaguna da; izan ere, urte asko egin ditu telebistan lanean, irratian ere jardun izan du, eta bertsolaritzan gai-jartzaile izandakos ere bada.



## Datua ▶

# 1969

### EKAINGO MARGOAK.

Ekainaren 8an 35 urte beteko dira Antxieta Jakintza Taldeko sortzaile eta kide Andoni Albizurik eta Rafael Rezabalek. Ekaingo margoak aukitu zituztela, Zestoan. Gaur egun, Ekaingo kobazuloaren erreplika egiten ari dira.

## Argazkia ▶



### LUMINOR ZINEMA.

Foru Ibilbidean zegoen Luminor Zinea lurreratzeko baimena eman zitzaloz Gregorio Ansoalderi, 1954ko ekainaren 18an. Haren aldetik Zelaitxo Zinea proiektua jaso zuen. Zelaitxok urte ugari egin zituen, duela bi urte bota zuten arte. Orain areto txikiak irekiko dira.

Kontua da... ▶

## Itxaropenean



Imanol Elias  
Odriozola

**J**ose de Artetxe azpeitiar idazlea ardatz bihurtu zen Nazioarteko Liburu Egunean. Ardatz, trena duten eta ez duten herri eta biztanleen artean. Euskotrenek, Artebek 1950ean argitaratutako *Mi viaje diario* lanaren edizio berria banatu baitzuen bezeroen artean. Ekintza txalogaria, bidua eta kultura elkartzea. Ez zuen seguruenik azpeitiar idazleak inoiz pentsatuko Urolaldean ibili eta bere herrira iristen zen trena galduko zenik, baina bere lanaren edizio berri bat kaleratu aurrez, behin baino gehiagotan bidaia zuen tren zaratatsu hark geldirik zeramatzan urteak.

Gaur egun bere herrian den Trenaren Museoa ikusteko aukera izanik, auskalo zer pentsa zezakeen. Hainbeste lokomotore eta, bagoi geldirik... Lurrun-dun lokomotorea Azpeititik Lasaora bitartean dabilta, Loiola aldera ezinezkoa egiten zaiolako joatea, baldin behintzat lantegi baten barnetik igaro ezik...

Zeharo oker ez ba naiz, ez al zitutzen lehen bidaia egin trenak, museoa sortu ondoren, Loiola alderdi horretara? Edo, amets bat izan da nirea?

Gauzak horrela, datozen bezala hartu behar. Trenaren ordez autobus luzeak ditugu Urolaldean; hau da, *mi viaje diario* hori nahi izanik egitea. Bitartean, andaluziar batek esan dezaken bezala: "ir pa nai". Eskaintzen zaigun bidaia, trena umeek ikusteko.

Urola trenaren liburua aurkeztean 2002an Azpeitiko udaletxeen, agindu zigon norbaitek –politikaria bera– trena izango zela oraindik Urolaldean, Zumaitik Azpeitira bitartean behintzat, txatarrar garraiatzeko lehenik eta geroago, akaso, bidaiarentzat. Biurte igaro dira, lehen urratsik egin den aztarnak ez dugu eta askotan bezala politikarien hitz dotoreak haizeak eraman dituela pentsatzen hasiak gara. Itxaropena ez omen da galdu behar inoiz, ordea...

► Garai bateko Azpeitia ▶ Inixio Mari Aranetak kontatua

## Lana eta FESTA

**Lana urte askoan eta gogor egina da Inixio Mari, baina inguruko herri eta auzoetako festetara joateko denbora ere hartzen zuen**

▶ Testua: Iñaki Agirretxe

Inixio Mari orain jubilatua da, gaur egun gustura ibiltzen da bilobarekin Loiolara bueltaka eta Elosiagako bere baserrian baratzan lanean. Hark dioen bezala, "tamainan" egiten du orain lan...

Urte asko pasatu ditu lanean aurretik, ordea; eraikuntzan 44 urte, baina hasieran beste lan batzutan ibilitakoa da. "15 urte nintuela Atxubiaga baserrira joan nintzen lanera, morro. Eta Azpeitira morro etorri nintzenean ezagutu nuen bertako berri; ordu arte ez nuen horrenbeste ezagutzen. Bi urte pasatu nintzen lanean han. Oso gustura ibili nintzen, familia ere oso ona baitzen".

Morro bi urte igaro ondoren, Organu fabrikan hasi zen lanean. "Organeria Española izena zuen fabrika bat baren herrian eta bertan hasi nintzen lanean, baina ez nuen denbora luzenik pasatu bertan. Izan ere, kobratu ere gubii egiten genuen. Aste osoa lanean pasatu eta 32 pezeta inguru kobratzen genituen".

**"Azpeitira morro etorri nintzenean ezagutu nuen bertako berri; ordu arte ez nuen horrenbeste ezagutzen"**

INIXIO MARI ARANETA ▶ jubilatua



Jendea lanean. AIZTEGI

Organu fabrika utzi eta obran hasi zen. "Denetik egiten genuen: hormak, enkofratuak... Lanean ibili nintzen 44 urteetan asko aldatu zen lan egiteko era. Hasieran dena bizkarrean igo behar izaten genuen. Gero etorri ziren grua txikiak, eta asko arindu zuten horrelakoek lana".

► **FESTAK.** Baina ez zen dena lana izaten; Inixio Mariak hartzuen festarako beta ere. "Beizama, Urrestilla... Lagunak ibiltzen ginen inguruko herri eta auzoetako festetan. Hasieran oinez ibiltzen ginen alde batera eta bestera, baina gero lagun batzuok bizi-kletta erosi genuen eta bizikletaz joaten ginen bazter guzietara".

Elosiaga auzoko festak Santa Luzietan izaten dira, abenduaren 13an, "Orditik asko aldatu dira festak. Lehen auzoko festen zain egoten ginen, eta giro politikoa izaten zen, nahiz eta negua izan eta eguraldiak ez lagundu. Horrelakoetan ganbara edo koarto moduko batean sartu guztiak eta jokoan ibiltzen ginen". ▶



## Hitz gezidunak ▶



	Pozoa	Metodoak	Arrastoa	Ipar-irten	Arabako eskuialdea
DEITURA	Rutenios	Ogi egilea			
Euskara molde	►				
Ordaina					
Salto egin	▼	Zintzo	► ▼	Errep., komiki lagun ... egin, obeditu	Kasik ►
Manu		*IZENA			Ulti
Infinitu	►		▼		Röntgen
Italiako sumendia					Filosofia adarra
Duela 24 ordu	►		▼	Senarraren ezkontidea	
Heldu				Sodica	Naizen honiek
U biritan	►		Uretako bizidunak	Bizkaiko ibaia	
				Errep., gorotza	Norekin atzikia
				Iridioa	Ezinaren erdian
				Izatasuna du	
				Kontso-nanties	


\* Henrike aktorea.


## Pasarte kodetua ▶



Xabier Alday idazle azpeitiarraren pasarte bat (Bazterrekoak, 2000) azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoan. Joko honetan, zenbakiek hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri gisa.

1	3	E	4	N	5	6	7	8	9	T
11	A	12	13	14	15	16	I	18	19	20



**Soluzioak ▶****Zer kale da hau? ▶****HITZ GEZIDUNAK****PASARTE KODETUA**

azken telebista zuztirizun artean, Xabier Alday  
nuea begi ematen nuen nola desagertzen zen herriko  
azkenak azken oharra beldarretan firmindan ge-  
zabearen azken oharra beldarretan firmindan ge-

**UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA****zein da hau?****Fernando Morillo****irabazlea**

**Larraitz Arzeluz** Uztarnakoa bazkidea izan da argazki lehiaketako 51. irabazlea. Motx ileapaindegiko zerbitzua irabazi du sari gisa. Argazkian, Larraitz —ezkerrean— eta Mobi ileapaindegiko.

**EPELDE INMOBILIARIA**

Goiko Kale, 1 - Behe  
Tfnoa/Faxa: 943 15 03 31 



Lore Sortak  
Koroak  
Lore Apaingarrak

Etxetarako  
zerbitzua dugu



Tel: 943 81 51 87  
Loiolaidea, 25.

**ERAKUSKETA:**  
Eliz-kalea, 12 - behe  
Tfnoa, eta faxa: 943 81 12 12  
**BILTEGIA:**  
Landeta Hiribidea, 19  
Tfnoa: 943 15 18 68  
20730 AZPEITIA  
E-mail: [tumalde@eusknet.net](mailto:tumalde@eusknet.net)

**Bainuak  
eta  
bainu osagarrak**

**ESKAINTZEN DUGUNA**

**Iurgitza**  
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta  
berrogei mantenu lanak  
Gesa (EG-IV kategoria)  
Eregai likidoak



**Ekain**  
ALBALTARI KLINIKA

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Lantaildak:  
**943 15 16 40**

## Zaindu ▶ Ultzerak

Julian  
Bereziartua



**E**zagunak eta errepikariak dirén ahoko 'afra' edo aholegarrez ari gara. Itxuraz, gaitz amunta da, baina oso gogaikarna.

Ultzena itxurako lesio bat edo gehiago azaltzen dira, biribilduak eta sakontasun gutxiokoak; hori bai, janarien edo hortzen ukituz adibidez, min ematen dute.

Oraindik ez dà ezagutzen bere jatorria. Mediku eta gaixo dudan esperientziz, tratamendua emateko eta sendatzeko ditugun botikak oso pobreak eta eragin txikiokoak dira. Profesionalari dagokio diagnostiko bereizgarria egitea, antzeko lesioak ere ezagunak baitira; hies-ak eragindakoak, sendagaiek sortutako herpesak...

Ahoan eta inguruan azaltzen dira gehienetan: mihi gainean, masailean, ahoazpian...

Dakigunez, ahoko ultzerak iza-tea familiabik etor daiteke; pertsona gazteei dagokie eta bere kasa sendatzen dira astebete edo bi astean, nahikoa sufritu ondoren.

Tratamendurako ezinbestekoak da garbitasuna, urez, bikarbonato sodikoz edo ozpinez. Hala ere, ez ahaztu, batek baino gehiagok gauza bera egiten duela Koinak edo Brandy kopa batez, ondoren txurru eginez. Dena den, denetarajo izan da, baina nahikoa zalan-tzako emaitzak jaso dituze.

Gutako batzuek mina jasaten ikasi dugu, horretarako prestatutako anestesiokoak erabiliz.

## MARI JOSE BIKENDI ▶

musikaria

**Kanta bat?**

Beatles-en *Let it be*.

**Talde bat?**

Beatles.

**Musika estilo bat?**

Denetik pinka bat;

klasikoa, pop...

**Instrumentu bat?**

Akordeoia.

**Melodia bat?**

The Loors taldearen

*Erin Shore*.

**Musika entzuteko une bat?**

Anratsalde iluntze aldean.

**Udaberriko kanta?**

Vivaldiaren *Udaberria*.

**Ikasle edo irakasle?**

Biak; nik uste irakasleak, ikasle ere bagarela.

**Gomendatzeko disko bat?**

Ez naiz diska zalea baina

Kepa Junkeraren Bilbao

00:00h.

**Konpositore bat?**

Jhon Lennon eta Paul

Mc Carney.

▶ Testua eta argazkia: Iñaki Agirrebe



## Abizena ▶

Larrañaga

**Armarria.**

Cadenas eta Vicente-en arabera, azurrean eginiko zilarrezko mundu bat. Honi laguntzen bi izar, urrezko zortzi izpiarekin, alde batkoitzean bana.



**Banaketa semantikoa.**

▶ Larrañedo Larrañea + -aga.

**Esanahia.**

Larrainko edo Larrañako adierazten du.

**Abizenaren kokapena.**

▶ Azpeitia.

▶ Azkoitia.

▶ Aizarnia.

▶ Albistur.

▶ Elorrio.

▶ Oixondo (Bergara).

▶ Getaria.

▶ Donostia.

▶ Txile (Hego Amerika).

**Abizenaren hedapena.**

▶ Azkotia (1765, 1808, 1832).

▶ Urretxu (1747).

▶ Eibar (1746).

▶ Zestoa (1771).

▶ Asteasu (1619).

▶ Antzuola (1660, 1748).

▶ Zumaia (1767).

## Esandakoa ▶

“ Gehiegizko diru nahiak askotan hondatu du gizakia eta gizartea”

**PAKO GARMENDIA ▶**  
soziologoa

“ Leku ezberdinak ikus ditzakegu konpartitzeko nahiz probisionalki gazteentzat jartzeko”

**AITOR GORROTXATEGI ▶**  
kultura eta gaztedia zinegotzia

## Zenbat ▶

# 571

**SINADURA.**

HZk Europako hauteskundeetara aurkezteko eskakizuna egiteko. Azpeitian 571 sinadura jaso zituen.



kutxa

gizarte ekintza

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

**KAITO TELEBISTA**

Grabatutako bideoen kopiat egiten dira



81 53 35

Gertuko pasadizoa ▶

# ezin bilatu AURKEZLERIK

'Azpeitiko Zine Kluba 25 urte fotograma  
artearen liburutik ▶ Argitaratzailea: Azpeitiko  
Udala ▶ 2002 ▶ Egilea: Zine Kluba



## GURE BILAKAERA ▶ Forum saioetako arazo larriena (30. orrialdea)

Esan bezala, gu zine zaleak ginen, baina zinea gustoko izatetik haren gainean aditu izatera alde handia dago. Eta gero, hori guztia jendurrean azaldu eta forum bat gidatzeko gauza izatea, are handiagoa. Beraz, gure kezka larrieta bat, zine forum bakoitzean, hura gidatuko zuen norbait aurkitzea zen. Hase-rako urte haietan Soreasu Zine-aretotik pasa-tuko ziren, besteak beste, Xabier Unanue zestaorra, Martin Ibarmia beasaindarra, Gracian Galarraga zumaiarra Loiolan zegoen Inazio Arregi jesuita, Cacedo de Yuson zegoen Kolodo Larrañaga apaiz azkoitiarra...

Franco Zeffirelli zinegilearen *Hermano Sol*, hermana Luna pelikula emanaldi komertzialean bota zen astearte batean; 35 lagun izan ziren. Hainbeste gustatu zitzagun, forumera-ko programatu genuen. Pelikula hau aurkeztu eta foruma gidatzeko, Inazio Arregi jesuita ekari genuen. Han aritu zen, pelikula ikusten ari zen bitartean, linterma txiki baten argitara bere ohartxoak hartzen, gero forumean erabiltseko. Forumean, Inazio Arregik adierazi zuen ez zitzaiola gustatu pelikulararen ikuspuntua. Jendeari, berri, zeharo gustatu zitzaiotz Asisko Frantziskori buruzko ikuspegia hura, bizitzari buruzko bere filosofia hippyarekin eta Zeffirelli-k filmari eman zion plastizitate eta irudien

gozotasun harekin. Ala Inazio Arregiren jarraha hura jendeak forumean, elkar hizketan parte hartzeako, hitz egitera bultzatzeko, izan zen?

Lehenengo saio haietan konturatutu ginen bazegoela pertaona bat, kolokio guztietan parte hartzen zuena. Berarekin hitz egitea era-baki genuen eta taldean sartzea proposatu, aurkezle lanak egiteko, besteak beste. Hala egin genuen, eta berehala baiezkoa eman zigun. Gerora kirol munduan ezaguna egin den pertsona bat zen: Xabier Azkargorta, hain zuen ere. Berehala txertatu zen taldean eta aurkezle lanak egiteaz gain, pelikulak bota au-rettik banatzen genuen orrikoaren ordez hala-ko 'errebitatko' bat egitea proposatu zuen. Xabierrek gidatu zituen bigarren urtetik aurre-rako forumik gehienak, hainbat urtean. Gero, bere lana zela eta, Azpeititik aski urru joan behar izan zuen eta guk aurkezle berrien bila hasi behar izan genuen berriro.

Azkargortaren lekukoa beste taldekuide bat-tek hartu zuen: Roman Gurutxaga Txoko-ko, hain zuen ere. Honek ere dienboraldi luzea egin zuen lan hauetan. Ez zen lan makala izaten aurkezenaren kontua. Pelikula hasi aurre-rik, zuzendaria eta ikuskizun zegoen peliku-laren aurkezen-sarraratxo bat ematea zen helburu (...) ▲

**Amenabar**  
DENDA

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikosak....

Eliz-kale, 32-beheko - Tel/Fax: 943 15 06 97

ostadar optika  
OPTOMIK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arteaga, 17  
Tel. 943 810664  
AZPEITIA

Bilbao Oficio, 28  
Tel. 943 830449  
AZKOITIA

ORKATZ KULTUR ELKARTEA  
Entzi Kalea, 24

AZKOITIA  
ERLOJU KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZKOITIA Tel. 943 81 47 12

TORREALDAY  
atxilikulari kontseilariek

Iberriamen plaza, 7 bebea  
Tfno.: 943 15 03 69  
Fax: 943 15 16 74  
azpeitia@utorrealday.com

domysa

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Biele**

## Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK	OSASUNA	LARRIALDIK	EA	81 00 11	Antxieta Etxea	81 35 40
Udaletegia	15 72 00	Ambulategia	81 51 00	PSE-EE	15 72 00	Kontseilua
Udalzaingoa	15 13 13	Anbil-Larraldia	81 12 01	PP	15 72 00	943 59 12 00
Suhiltzaileak	112	Asepeyo	81 44 00			
Azpeitia Lantzen	15 71 83	Gurutze Gomia	85 32 97			
Iraurgi Lantzen	85 11 00	DYA-Donostia	46 46 22			
Nekazal Bulegoa	81 24 85		Nabarra	948 22 71 25	LAB	15 13 56
Itunbikia Ludoteka	15 11 79	<b>KOMUNIKABIDEAK</b>	Amate Irratia (pribatua)	81 26 32	EHNE	81 39 28
Zapo Txoko / GIB	15 71 61	Uztaria	15 03 58	Loiola Herri Irratia	81 44 58	
INEM	15 04 02	Hitza (Azpeitia)	81 38 41	Euskadi Irratia	943 01 23 00	<b>KULTURA-EUSKARA</b>
Kiroldegia	81 30 69	Hitza (Zarautz)	89 00 17	Kaito Telebista	81 53 35	Karmelo Etxegarai
Igerilekua	81 41 21	Azpeitian Zer?	81 11 00	Izarraitz Telebista	85 13 05	Urola BHI
Ertauntza-Azkotia	08 37 80	Berria	943 30 40 30	ETB	943 01 17 05	15 12 46
Aitonental I	81 51 71	Gara (Hemik)	943 31 69 99			UGLE (uholdegarriak) 273 posta
Aitonental II	81 23 89	Dela (berrendak)	943 72 57 75	<b>ALDERDI POLITIKOAK</b>		Xoxoteko aterpea 56 10 07
Epaitegia	02 51 91	DV (berrendak)	943 15 08 94	EAJ	81 55 70	Hitzeko Euskara Komunikazio Zerbitzuak
Ingorumen Etxea	81 24 48	Argia	943 37 15 45	Habea	15 72 00 (138)	665 72 39 79

**112**

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46	Iraurgi	81 02 10
Amate Irratia (pribatua)	81 26 32	Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Loiola Herri Irratia	81 44 58	Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Euskadi Irratia	943 01 23 00	Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Kaito Telebista	81 53 35	Karmelo Etxegarai	81 26 97
Izarraitz Telebista	85 13 05	Urola BHI	15 02 28
Udal Euskaltegia	81 19 47		
AEK	15 10 89	<b>BESTERIK</b>	
EHE	15 10 89	UGLE (uholdegarriak) 273 posta	
Udal Liburutegia	15 71 95	Xoxoteko aterpea 56 10 07	
Loiola Liburutegia	81 65 08	Hitzeko Euskara Komunikazio Zerbitzuak	
Uztaria Kultur Koor.	15 03 58	665 72 39 79	

## Farmaziak gaez ▶ ekaina

2-17-21-26-27

4-15-23

5-6-16-19-20-24

1-18-25

3-14-22

7-8-30

12-13-28-29

Garzia (Azpeitia)

Aranburu (Azpeitia)

Beristain (Azpeitia)

Etxebeste (Azpeitia)

Zulaika (Azpeitia)

Jaen (Azkotia)

Azpiazu (Azkotia)

943 81 12 74

943 81 13 50

943 81 19 49

943 81 59 74

943 15 03 34

943 85 06 60

943 85 29 89



## UDAL LIBURUTEGIA.

Adin guztiak bakoizkideek har ditzakete liburuak. 12.926 liburu daude aukera eta bakoizkide bakoitzak lau liburu har ditzake hogeita bat egunez. 1989. urtetik aurrera eginiko hemeroteka ere badago. Horrez gainera ikasleentzako ikas gela bat ere badago.

## Garraioa ▶

ALDALUR  
85 27 18EUSKO TREN  
15 06 77GUIPUZCOANA  
85 11 59PESA  
21 26 99PIPER ELK.  
85 25 87TAXIAK  
81 13 07

## ZAPO TXOKO

- ▶ Asteartea-ostirala: 17:00-20:30
- ▶ Larunbata: 16:00-20:30

**%90**eko  
laneratze ziurra

UNIBERTSITATEA

**UROLA**  
LANBIDE HEZIKETA  
• ALTZARIGINTZA  
• MEKANIKA  
• ADMINISTRAZIOA  
• INFORMATIKA



Aurrematrikulazioa  
Ekainaren 1etik 9ra  
Matrikulazioa  
Uztailaren 1etik 7ra

# HONA HEMEN LANERAKO BIDERIK ZUZENENA

943 85 21 74



943 85 22 65



Makina  
Erremintaren  
Institutua  
Instituto de  
Máquina  
Herramienta

## INFORMAZIOA:

### Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar  
Telf. 943 74 82 65 - 74 41 32  
Faxa. 943 74 41 53  
email: [nekane@fmh.es](mailto:nekane@fmh.es)  
[www.imh.es](http://www.imh.es)



Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Ikastetxe  
Publikoaren sareko partaidea



# HEZIKETA ZIKLOAK

## GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

## ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa berria

- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazio  
eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

### ATE IREKIAK:

maiatzaren 20an eta ekainaren 3an,  
arratsaldeko 19etan



Izena emateko epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne

### ODONTOLOGI OROKORRA

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



### HORTZ KLINIKA

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

### ODONTOLOGI ESTETIKOA

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hertz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorrik
- > Odontologi tratamendu integralak

## zerbitzu berria: ERALDAKETA ETA KONPONKETAK

kremallera apurtu zaizula,  
soinekoia tarratu zaizula,  
argaldu zarela...

## UTZI EZAZU pressto-ko PROFESIONALEN ESKU

Ojalak, kremallerak, barrenak, forroak, e.a.

Larruzko arropen konponketa

kalitatezko ERALDAKETA eta KONPONKETAK  
larruzko jantzi GARBIKETA eta KONPONKETA



**press-to**  
Kaltitatezko Tindalegi  
Azkarra [www.press-to.com](http://www.press-to.com)

Jose Artebe, 9 AZPEI

943 81 6

Guardia kalea, 3 AZKOI

943 85 1

San Francisco, 32 ELGOIBAR

943 74 3

**ROMAN ALONSO** ▶ gasolindegiko langilea

# “Hemen denetik jakin behar duk: eguraldiaz, tokiez...”

► Testuak: Enekoitz Esnaola ▶ Argazkiak: Ihintza Agirrebex



## TXIKITAKO AMETSA.

Roman Alonso txikitako garbi zeukan zer izan nahi zuen handitan: "Pasteleroa, gozozalea izan naizelako beti. Baino oso ume nintzela dagoeneko gasolindegian nengoan bueltaka eta...". Segitzen dio pastelak-eta jateari. "Gainera, Egañanekoa laguna diat eta hark gonbidatzen naik".

**H**erri txiki-ertain batean langile ezagun tipiko horietakoa da gasolindegiko. Roman Alonso, adibidez. Noiztik gasolindegian?

Hasi, hasi, 16 urterekin, baina txikitako gasolindegira etortzen ninduan, aitarekin, honek bertan egiten zuelako lan (27 urtean).

Orain 32 urte dauzkak. Bizi erdia, beraz, hemengo haliza aguantatzen...

Siberia deitzen ziotek.

Hasi kontatzen istorioak, izango dituk eta...

Egia esango diat: egunero 50 bat aldiiz hitz egiten diat eguraldiaz... Baino batzuekin ezin, kroaziarrak, errusiarrak, belgikarrak, alemaniarrak... ere izaten ditudalako.

**Lanean pasoan daudela?**

Bai, baina turistak ere etortzen dituk. Hor jarduten diat krokisak-eta egiten, halako herri non dagoen, edo halako tailer, edo halako baserri ere bai!.. Hemen denetik jakingo beharra zagok, motel.

**Beste pasadizo bat.**

Behin lagun bat goitik behera gasolinaz bustinian. Ez diat badaez-pada haren izenik botako; lehen ere nahikoa akordarazten zidak zapatu gauetan.

**Bota beste bat.**

Lapurreta egin izan dutenean, beti gauez, baina caja fuertea hautsi gabe, borrazoak eman arren. Behin egunez, ordea, batek neu aurrean nintzela, dirua lapurtu zitean, baina neu konturatu gabe; magia egin zian, egia.

**Bestela, Ian honetan amistadeak sortuko dituk, ezta?**

Bai, bai. Bazagok, edadeko jendea batik bat, egunero hona etortzen dena, bisitan, denbora-pasa. Aniton Porru eta; ederrak istorioak honenak, baina berak konta ditzala.

**Jendea kexatuko zaik gasolinaren prezioaren igoeraz...**

Ezta geuk igoko bagenu ere!

# mina daukat eztarrian, Y YO, JÓSE

Azpeitian bi pediatra daude osasun zentroan eta biek ez dakite euskaraz; EHEk sinadurak biltzen jardun du

► Testuak: Iñaki Agirretxe-Enekoitz Esnaola ► Argazkiak: EHE-Nerea Uranga



**A**zpeitian-gaixorik dauden umeek badute beste arazorik: pediatrak ez dio ulertzen. Bi pediatra daude osasun zentroan eta biek ez dakite euskaraz.

Hori dela eta, Azpeitiko Euskal Herriko Euskarazek (EHE) pediatrak euskaldundu daitezen aldarrikatu du berriro. "Euskaldunok urratuta dugu hizkuntza eskubidea. Badirudi daukagun eskubide bakarra sendagilearen zerbitzua jasotzea dela, gure oinarrizko eskubidea kontuan hartu gabe: hizkuntzarena".

EHEk "garbi" utzi nahi du bere aldarrikapena eta kritika hizkuntzara mugatzen dela. "Gu ez gara sendagile onak ala eskasak diren hausnartzen hasiko, ezta eztabaidatzen ere. Azpeitiko umeek eskubidea dute osasun zentroan euskaraz hitz egiteko, baina ez diete ulertzen".

Euskal Herriko Euskarazaren ustez, egoera honek gaur egungo hizkuntza politika "zintzilik" jarzen du. "Euskara ofiziala izango den berehalako hizkuntza politikaren premia dugu. Euskararen erabilera, euskarazko irakaskuntzaren eskaera eta eskaientza, euskararen normalizaziorako planak eta abar, gero eta indartsuagoak direla azpimarratzen da garaia hauetan, eta ez alda kontraesana hainbat osasun zentrotan, gune pribatuaren, administraziotan, epaitegian... erdaraz hitz egin beharra?". Esate baterako, Azpeitiko osasun zentroan.

# Denok IRUÑERA

**Ekainaren 5ean Kontseiluak manifestazioa antolatu du  
hizkuntza eskubideen alde; Uztarriak autobusa antolatu du**

► Testua: Josu Uranga ► Irudia: Kontseilua

**K**ontseiluak Hizkuntz eskubi-deak! Denon konpromisoa ekinaren barnean, ekaineren Serako manifestazioa iragarri du, Iruñean. Horrela, euskararen nor-

malizaziorako eta hizkuntza esku-bideekiko konpromisoen aldeko deia egindu.

Uztarriak autobusa antolatu du, eta Iruñera manifestaziora

joan nahi duenak izena ematera. Uztarriko egoitzara istorri besterik ez du. Telefono bidez ere eman daiteke autobusera izena: 943 15 03 58. ▶



## MANIFESTAZIOA ▶

**Eguna.** Ekainak 5 (larunbata).

**Ordua.** 17:30.

**Hiria.** Iruñea (Golem).

**Azpeitiko irteera.** 15:10ean.  
Etxe-Zuri aurretik, autobusean.

## uztarria.com

"Azpeitiko pediatrek euskaraz ederki ulertzen dute, nahiz eta hitz egiteko gai ez izan. Beraien lana ondo betetzen dute eta utzi bakean lanean!"

► Antzeta

"Beraien lana ondo egingo dute, hon inork ez du ukatzen. Baina Azpeitian ume gehienek erdaraz ez daukate arrastorik, eta medikuaren joandakoan gauzki pasatzen dute, ez dutelako ezer ere ulertzen. Zaharragoi ere pasatuz izan zaizkigu horrelakoak, eta ume gizagajoak..."

► Bale



## Datua ▶

# 200

## SINADURATIK GORA GOIZ BATEAN.

Maiatzaren 8an goizean egin zuen EHEk Azpeitian pediatrak euskaldundu daitezten eskatze sinadura bilketa, eta 200etik gora bildu zituen. "Jendeak kezka eta ezinegona erakutsi zuen".

Osasuna baklean utz ezazue, faborez".

► Erizain diplomatua

"Euskal Filologian lizenziatura? Ezta gutxiagorik ere! Baina umeak beraien medikuari uler-tea garrantzitsua da. Medikuaren funtzioa sendatzea da, baina umeak sendatzea, ez txakurrak.

Umeek ulertzen duten hizkuntzan egin beharko dute, ezta? Errespetu falta da umeen medikuak eraldunak izatea".

► Ez, ez

"Hemen arazoak ez da osasuna! Hemen arazoak, gure hizkuntza behin eta berriro zapaltzen ari dira da, eta pixkanaka gure eguna

neroko bizitzatik euskaraz ezabatzen ari direla. Orain pediatrak dira, gero agian bankuak, gero udalak, gero... Hizkuntza bat horrela galtzen da".

► Gure hizkuntza zer?

"Pediatrak baklean uzteko? Orduan baita munizipalak ere, eta baita gaztelera funtzionatzen duten enpresak ere, prezioak erdaraz jartzen dituzten dendak, idatziek gaztelera bidaltzen dituzten udal aparejadeak... Euskaraz bizi nahi badugu, arlo guztiek euskalduntzeko pausoak eman behar dira. Eta pediatren kasuan, berdin".

► Solidarioekin solidarioa

"Nork esan du Azpeitiko pediatrek gazki egiten dutela beraien lana? Inork ez. Baina ez al zaizue iruditzen Azpeitia bezalako herri batean (%90a euskalduna da) lotsagarría dela bi pediatra izan eta batek berak ere ez jakitea euskaraz? Lehen dendan batek, "nire dendan prezioak nahi dudan hizkuntzan jarriko ditut...", esan du. Eta? Niri behintzat, lotsa emango lidake denda bat izanez gero, prezioak erdaraz jartzea, eta lotsarena da gutxiengoa; izan ere, egundoko kontzientzi karga izango nuke".

► Aizpuru

"EHEkoi: zein da pediatraren funtzioa? Umeak sendatzea, agian? Zer titulazio behar da pediatra izateko, Medikuntza? Eta gero, gainera, MIR? Edo hobeto Euskal Filologian lizenziatura?

## Euskararen gorabeherak ▶

SALAKETA - DENUNCIA		
Ibilgailua - Vehículo	Mota - Clase	Matrikula - Matrícula
Arria-Hautzaren tokia - Lugar de la infracción <i>Enpresaeko zubiak</i>	Univerraldea - Fecha de la infracción 02/01/25/04/2004	
Zubiako seikaren bidez debekatutako lekuak apuntatzear	Udaltzak - El Alcalde Zka-Nº	
Agenda urratua - Pregón estinguido	Luzera - Caracter	Zentzaleko Importe
		H.K.-C.I.
		Nº Boletín - Zik.
zen denaturak lendible y apetitentes	Notificación egindutako - Diligencia de notificación <i>Falta de</i> N.A.N. D.M.F.	
 <b>GORA. Isuna</b> Kasu batzuetan aipatu izan dugu udaltzangoen gaztelaniazko joera isunak jartze-rakoan. Kasu honetan, ordea, euskaraz jarri dute isuna. Hori da bidea.		
 <b>BEHERA. Kamioi errrotuloak</b> Landetako industrialdean oraindik ere errrotulo asko topa daitezke gazteleraz, argazkiko bezalakoak. Utzikeria da hori, ez besterik.		
		

**Behatokia ▶** (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

**902 19 43 32**

## Eskubidea ▶

**“** Eskubidea dugu euskararen erabilera ekintza positiboen bidez sustatu dadin”

Euskal Herriko Euskararen 'Bideak' eskubideak hartua; Uztarri dago edonoren eskura

## Bota lasai ▶

**Gora.** "Garai batean askoz kotxe gehiagotan jartzen zituzten 'se vende' eta horrelakoak. Gaur egun askoz gehiago ikusten dira 'saigai' eta. Oso garrantzitsua da hizkuntza paisaia. Hauxe esan zidan Iruñeko euskaldun batek orain dela urte batzuk: 'Nola nahi duzu euskaraz egitea han geure artean, gazteleraz ikusten dugu eta! Kartel denak daude erdaraz, idatzi denak... Eta nahi gabe hasten gara euskaldunon artean erdaraz'. Kasu honetan geurera mugatz, Azpeitian dena euskaraz ikusi behar dugu. Ari gara".

▶ Mirari

**Behera.** "Istripu bat egon zen Euskal Herriko hizkuntza parean, eta Ertzaintza hurbildu zen hara. Han zebilen azpeitiar gizonezko bat ere (istorio hau kontatu zidanaren aita), eta honek ertzain bat: 'Arratsaldeon'. Ertzainak espanolez erantzun zion. Eta gizonezkoak: 'Arratsaldeon esan dizut', euskaraz agurtu zuela esanez bezala. Eta ertzainak: 'Oye, estamos en el imperio. Estamos en España'. Azpeitian gaude, Azpeitia Euskal Herria da, Euskal Herria euskararen herria da eta Ertzaintza polizi publikoak (ere) derrigorrez jakin behar du euskara. Baino ia denek ez dakte. Intsumisoak dira ertzainak".

▶ Enekoitz

[www.uztarria.com/euskara](http://www.uztarria.com/euskara)  
atalean emandako iritzia

# LASAO

10

MUEBLE MACIZO

EGURREZKO ALTAZAK

GAZTAINDOA %100 TRINKOA  
AMAIERA EKOLOGIKOA



[www.lasao.com](http://www.lasao.com)





Jose Artetxe, 1.

Tel./Fax: 943 21 16 50

Santi Lazkano Kirolak

## ETXEBIZITZA BERRIAK AZKOITIAN

(XABIER MUNIBE IKASTOLAREN ONDOAN)

ESTRADA AZKOITIA ERRESIDENTZIA



- 2 eta 3 logelako etxebizitza zabalak orientazio ezberdinekin
- Etxebizitzak behe solairuan eta teilatupean terraza handiekin
- Garaje eta trastelekuak
- Gune eguzkitsua, hirigunetik gertu

**Neinor** ■

NEINOR Azkoitia

Julio Urkijo etorb, 10 behea

943 852 411 - 943 317 511